

72

3 euro • 2002ko AZAROA euskal heziketarako aldizkaria

hh

hik hasi

GAIA: KULTURA ERREFERENTEAK  
OINARRIZKO HEZKUNTZA CURRICU-  
LUMEAN • ELKARRIZKETA: PEDRO  
ARANBURU • JOLASEN ALTXORRA  
BIDEO BERRIA • ELBIRA ZIPITRIA



TEKNOLOGIA BERRIAK

elkasbide proiektua

Haur eta Lehen Hezkuntzan

# IBAIZABAL argitaletxean haurrentzako albumak




**IBAIZABAL**



gaia

## KULTURA ERREFERENTEAK

Begoña Bilbao EHUko Bilboko Irakasle Eskolako irakasleak egin duen tesi interesgarri bezain garrantzitsuaren muina biltzen da hilabete honetako gaiari. Tesiaren izenburua honako hau da: Kultura erreferenteak oinarritzko hezkuntza curriculumean Euskal Herriko eskoletan.



elkarrizketa

## PEDRO ARANBURU

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko lehendakari berriarekin jardun gara solasean ikastolen mugimenduari atzera eta aurrera begiraturaz.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

## KULTURA ERREFERENTEAK OINARRIZKO HEZKUNTZA CURRICULUMEAN, EUSKAL HERRIKO ESKOLETAN

Begoña Bilbao

18 elkarrizketa

## PEDRO ARANBURU

24 teknologia berriak elkasbide proiektua

Nekane Mendizabal, Jose Miguel Blanco eta Joxemi Correa

29 berriak

elkasbide proiektua

Nekane Mendizabal, Jose Miguel Blanco eta Joxemi Correa

37 berriak

Jolasen altxorra bideo berria

40 eskolako zertzeladak historian

Elbira Zipitria


Idoia Fernandez

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 37.14.08

Fax: 943/ 37.21.54. Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Koordinatzailea: Joxe Mari Auzmendi Erredakziburua; Ainhoa Azpiroz Erredakzio batzordea: Mikel Estarza, Arantxa Goiburua, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Imanol Agirre, Abel Ariznabarreta, Begoña Bilbao, Marian Bilbao, Felix Basurko, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goni, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Otaola eta Pruden Sodupe. Diseinua: TRAM Grafik Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Ikasbide ikastolako haurrek (Hik Hasi).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2002/ X / 25 . Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz baliatzen dira. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.



# Euskal jolasen bilduma (2)

ipurtargien ganbarara jolas interaktiboa



## Euskal jolasen bilduma (2)

Windows eta Macintoshen erabilgarria den aplikazioa, CD-ROM eta CD-AUDIO (musika aparatuan ere entzun daitezke), bi atal nagusiz osaturik: Jolasen Fitxa teknikoak eta Ipurtargien ganbara (jolas interakti-


**F** **T**  
**i** **e**  
**t** **k**  
**x** **n**  
**a** **i**  
**o**  
**a**



- 50 jolas
- 29 abesti
- Nola jolastu
- Aldaerak
- Informazio sozio-kulturala
- Esamoldeak
- Heziketa gatasunak
- Jolas mota
- Adina
- Kopurua
- Materiala
- Espazioa



### “Ipurtargien ganbara” jolas interaktiboa



Jolasen helburua ibilbide osoa egitea da. Alegia, zerotik hasi eta ipurtargiak jolaserako zain dauden ganbarara heltzea. Batetik bestera joateko, dadoa baliatuko dugu. Jokalari kopurua: jokalari bakar batentzat jolasa da. Modu honetan, bakarrik, binaka nahiz taldeka, gaudenak gaudela, helburua guztion artean ahalik eta puntuazio onena lortzea izango da.

Prezioa: 20€

Eskaerak:

Gipuzkoako Urtxintxa Eskola

Tnoa: 943 270 033



# editoriala

## azaroa

### Euskararen Kontseiluaren Laguntzaile izateko gure gonbidapena



Euskara aurrera aterako bada, nahi hori dugun guztion elkartasuna eta elkarlana ezinbestekoa da. Gainontzekoa, bide nahasitik ibiltzea da.

Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseilua jaio zela bost urte betezera doaz.

Kontseiluaren aurtengo Batzar Nagusiak "Bai Euskarari Laguntzailea" egitasmoa abian jartzea erabaki zuen. Egitasmo horren helburua, euskararen aldeko jarrera dutenei beste urrats bat egiteko konpromisoa eskatzea da, hau da, Kontseiluari laguntza ekonomikoa ematea eskuartean dituen funtsezko egitasmoak eraginkortasunez eta autonomiaz aurrera eramateko.

**hik hasik**, bere sorreratik, euskararen aldeko eta Euskal Herri osoko egitura duten erakundeak bultzatzea izan du xede. Horregatik, Euskararen Kontseilua hasieratik bultzatu du, Kontseiluko bazkide delarik.

Une honetan, Kontseiluak eskuratu digun "Laguntzaile orria" gure harpidedunei helaraztea eta **laguntzaile** izan zaitezten proposatzea iruditu zaigu euskarari laguntzeko modurik egokiena.

Ale honekin batera zuri luzatutako laguntzaile orrian Kontseiluak hauxe dio:

*Kontseilua jaio zenetik, 1997 urtean, euskararen aldeko gizarte konpromisoa sustatzea izan da bere zeregin nagusia: Bai Euskarari Akordioa, Bai Euskarari Kanpaina, Euskararen Normalizaziorako Konpromiso Politikoa, Bai Euskarari Ziurtagiria, Bai Euskarari Akordioa herrietara zabaltzeko egitasmoa, Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren sorrera... Hamaika urrats egin dira euskararen nor-*

*malizazio bidean, baina gehiago dira egiteko geratzen direnak, euskara bizirik irauteko behar duen normalizazio egoeratik urrun dagoelako oraindik. Ezinbestekoa da gizarte osoaren konpromisoa. Baita zurea ere. Euskararen alde konpromisoa hartzeko modu asko daudelako, eta autonomiaz jokatzeko Kontseiluak diru iturri propioak behar dituelako, "Bai Euskarari Laguntzailea" izan zaitezela proposatzen dizugu. Hilero diru laguntza txiki bat eman ez, sekulako bultzada emango diozu euskarari.*

*Ez da aukera txarra, ezta?*

Horrela, bada, euskararen alde lanean ari diren erakunde guztiekin bat eginez, aprobetxa dezagun eskaintzen zaigun aukera.

Ongi izan, laguntzaile!

# kronika

Unibertsitatez kanpoko EAEko irakaskuntza publikoko lan hitzarmena sinatu dute Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburuak eta ELA, LAB eta EILAS sindikatuetakako ordezkariak. Hitzarmen honek irakasle funtzionarioen lan baldintzak arautzen ditu eta 1998az geroztik egin den lehen hitzarmena da berau. Sailburua nahiz sindikatuko ordezkariak pozik agertu dira lortutako akordioarekin. Iztuetak adierazi duenez hitzarmenak irakaskuntzaren kalitatean eragingo du. Alde batetik, irakasle egonkorren kopurua igoko delako (926tik 1.500era); eta bestetik, 1.500 lanpostutarako deialdia egingo delako. Urte sabatikoa, irakasleen prestakuntza eta laneko arriskuak aurreikusteko zerbitzua ere jasotzen dira hitzarmen honetan.



## 0-3 Urteko Hezkuntza Zikloaren Aldeko Plataformak etapa arautzea eskatzen du Nafarroan

0-3 Urteko Hezkuntza Zikloaren Aldeko Plataformak Nafarroako Parlamentuansalatu duenez, UPN ez da ezer egiten ari ziklo hori arautzeko eta kalitatezko sarea eskaintzeko. Horren aurrean kezkatuta agertu dira Plataforma osatzen dutenak, hots, Nafarroako haur eskoletako langileak, NUPeko irakasleak, guraso elkarteak eta hezkuntzako sindikatuak.

Plataforma osatzen duten guztiak argi eta garbi adierazi dute 0-3 hezkuntza zikloa izaera hezitzailea duela eta urte askotan eredu hori garatzen lan asko egin dela. Nafarroako Gobernuak, ostera, zerbitzu ikuspegiari eman ei dio garrantzia. Plataformako kideen hitzetan, *“Gobernuak LOGSEk bazterrean utzitako kontzeptua hartu nahi du berriro Kalitate Legean oinarrituta”*. Ho-

rrela, Hezkuntza Departamentuaren erantzukizuna izan beharrean, Gizarte Ongizate Departamentuarena izango litzateke.

Gaur egun 14 herritan eskaintzen da 0-3 urteko bitarteko zikloa, eta dato- rren ikasturterako beste bederatzigehiago izanen dira. Kasurik gehienetan udal erakundeen esku egoten da haur eskola horien kudeaketa, eta Plataformak salatu duenez *“horrek pribatizaziorako bidea bultzatzen du”* eta ez dute begi onez ikusten.

Sortzen-Ikasbatuazek ere ez du ongi ikusten UPNren politika *“bartzertzailea eta bereizlea”* euskal eskola publikoarekiko. Elkarteko kideek euskarazko irakaskuntzak dituen oztupoak salatu dituzte Parlamentuan. Besteak beste, Altasuko Lanbide Heziketako ikasleen egoera aipatu dute. Gaur egun ikasleen %52 D eredukoa den arren, ez da euskarazko ikasketarik eskaintzen, eta irakasleen lanpostu guztiak gaztelaniazkoak dira. Hurrengo ikasturteetan D ereduko ikasleen kopurua handituz joango da, inguruko ikastetxeetako gehienek euskarazko ereduari ikasten baitute. Horregatik, G eredukoa den Lanbide Heziketako Institutuan D eredu ere eskaintzea eskatzen dute.

Sortzen-Ikasbatuazek iritziak behar-beharrezkoa da ikerketa sakona egitea, ikasleek zein ereduari ikasi nahi duten jakin dezagun eta eredu horien eskaintzea egin dadin.

12 urteak haurraren aziliense deitu deza -  
kegun muga markatzen dute bai hizkuntza  
baita giza garapenean ere.

Jorge Oteiza



Kalitate Legeari argi  
berdea eman diote  
Madrilgo kongresuan

Hilaren hasieran Madrilgo Kongresuak baiezkoa eman zion Kalitate Legeari PPren eta Coalición Canariaren aldeko botoekin. Oposizioko alderdi guztiak aurka bozkatu arren, Legeak lehen urratsa pasa du %40ko babesarekin, eta hurrengoan zuzenketa partzialeri egin beharko die aurre. Oraingoan osoko hamar zuzenketa eztabaidatu dira, baina ez da bat bera ere onartu.

Legearen aurka agertu diren guztiek *“atzerakoa eta zatitzailea”* dela adierazi dute, eta autonomia erkidegoen eskumenak urratzen dituela. EAko Begoña Lasagabaster diputatuak gogor hitz egin zuen legearen kontra. *“Legeak hezkuntzaren ikuspegi zatikatzailea du, eta ez dio erantzuten Euskadiko errealitateari”*. Ildo berean mintzatu zen Joxe Joan Txabarri EAJko diputatua. 51 zuzenketa aurkeztu dizkio legeari eta horrekin batera hezkuntza siste-

ma alternatiboa proposatu. Proposamen horrekin kalitatean eragin nahi dutela adierazi du. Kongresuko babesaren %40koa dela ikusirik, *“PPri bere hezkuntza sistema inposatu nahi izatea”* egotzi dio.

Bien bitartean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu Anjeles Iztuetak EAeko hezkuntza sistemaren emaitzak Europakoak baino hobekak direla eman du jakitera. Esate baterako, aurreko ikasturtean ikasleen %81ak gainditu zuen DBH Euskal Autonomia Erkidegoan, eta Europan %80k.

1998-1999 eta 2001-2002 ikasturteko eskola emaitzak aurkeztu ditu sailburuak, bai sare publiko zein kontzertatukoak, eta datu horien oinarrituta euskal hezkuntza sistema *“oso maila onean”* dagoela nabarmendu du.

Emaitza horien arrazoia irakasleen lanean dagoela dio Iztuetak: *“irakasleen inplikazioa eta daukaten prestakuntza dira ardatz nagusiak”*. Horrez gain, ikastetxe bakoitzean hartzen diren aparteko neurriek ere emaitza horietan zerikusia dutela dio.

Dena dela, aurrera begira eta hobetzeko bide horretan hainbat erronka zehaztuta daude aipatu du. Batetik, ikastetxeen autonomia handitzea; bestetik, ikasketa ibilbideak eta horien arteko loturak hobetzea; eta hirugarrenik, DBH amaitzen duten ikasle guztiek euskara, gaztelania eta ingelesa ondo menperatzea.

Iparraldeko irakasleek greba egin zuten urriaren 17an *Lanpostu egonkorak, ez prekarioak* aldarrikapenarekin. 500 irakasle, ikastetxeetako laguntzaile eta langile bildu ziren Baionan FSU, UNAS, CGT, CFDT, FAEN, SUD, FO, SNETAA eta LAB sindikatuen deialdiari erantzunez.

Sindikatuak hiru aldarrikapen egin dituzte grebarekin.

Lehendabizi, Ministroaren Kontseiluak irailaren 25ean hezkuntzaren kalitateari buruz aurkeztu zuen Finantza Lege Proiektua salatu dute.

Bigarrenik, bigarren mailan sortzen diren baino lanpostu gehiago desagertuko direla salatu dute. Eta hirugarrenik, laguntzaile-hezitzaile postuak desagertu egingen direla 2003. urtean. Era berean, gobernuak

hezkuntzarako aurrekontuan egindako murrizketa salatu dute grebarekin. Izan ere, Jean Pierre Raffarinen gobernuak gazte lanpostuen desagertzea iragarri du, ordezkatuko lituzketen egiturarik iragarri gabe. Erabaki horren ondorioz lanpostu murrizketa ugari izanen dira ikastetxeetan.

Sindikatuak esanetan ikastetxeetako langileen %70ak baino gehiagok egin zuen greba.

Irakaskuntza maila guztietan egin bazen ere, haur eskolan eta lehen mailetan izan zuen eragin handiena.

# Kultura erreferenteak

oinarrizko hezkuntza curriculumean







## Begoña BILBAO

EHUko Bilboko Irakasle  
Eskolako irakaslea

Hurrengo lerroetan Euskal Herriko Unibertsitateko Didaktika eta Eskola Antolakuntza Sailaren onespenerekin defendatutako doktore tesiarren alderik azpimarragarrienak aurkezten ditugu. Paulo Iztuetaren zuzendaritzapean garatu den lana bada ere, ikerketa zabalagoan kokatu behar da, hain zuzen ere, Gurutze Ezkurdia eta Karmele Perez Urraza lagun direla buruturiko proiektua baita.

Tesi honek izenburu hau darama: Kultura erreferenteak oinarritzko hezkuntzako curriculumean, Euskal Herriko eskoletan .

# Kultura erreferenteak oinarritzko hezkuntzako curriculumean, Euskal Herriko eskoletan

Tesiarren zutabea, nukleoa, curriculum da, eskoletan lantzen den edukia, ezen ikasten den guztia curriculumaren arabera baita. Abiapuntu teorikoki aztertzen da curriculum, dagoen garapena eta ulertzeko moduak agertuz, batez ere, curriculum hori definitzeko edo ulertzeko erakgarutzat joan direlako Hezkuntza zientzien bilakarearekin batera. Hiru dira zientzia hauek azaltzen diren ikuspegi teoriko nagusiak:

- Ikuspegi teknologikoak edo paradigma positibistak emaitzetan jartzen du garrantzia: kontrola eta eraginkortasuna baloratzen dira eta produktu zehatza lortzea da garrantzizkoena, curriculumaren inguruan egon daitezkeen eztabaidak alboratuz. Ondorioz, eskoletan eta geletan gertatzen dena prozesu teknikoak baino ez dira, eta ezagutzaren objektibotasunaren izenean, curriculumaren izaera soziala aipatu ere ez da egiten.

- Bigarren lekuan ikuspegi praktikoa dugu, zeinetan gelako lanari, geletako praktikari, garrantzi handia ematen zaion. Hezkuntzaren eta irakaskuntzaren izaera soziala onartzen da, ezagutza zientifikoaren neutraltasuna salatuz. Edozein direla, teoriak beti sortzen dira testuinguru sozial eta momentu historiko konkretuan, uneko beharri erantzuna eman nahian. Nahiz eta ezagutzaren izaera soziala eta ez neutrala agerian jartzen den, teorialari hauek ez dute kolokan ipintzen eskolaren bidez estatuak irakasten duena.

- Paradigma kritikoa gelako praktika baino urrunago doa. Ikuspegi honen arabera curriculum testuinguruarekin lotuta dago, ez da neutrala. Ikuspegi honetatik haxe agerrarazi nahi da: curriculumari buruzko teoriak gi-

zarte teoriak dira, sozialak, ezen sortzen diren gizartearen arabera baita, interes eta balioen menpekoak, eta aldakorrek gizarte teoria guztien moduan.

Hezkuntza, gizartea, eskolatzea eta curriculum harremanetan jartzen dira, euren izaera ideologikoa agerian ipiniz. Hirugarren ikuspegi honetako teorialari kritikoek defendatzen dutena da curriculum erabaki politikoen arabera dela, hots, estatuak eraikitzen duela hezkuntza sistema eta curriculum haren intereseko diren edukiak ezartzen dituela. Curriculumeko edukiak garrantzi handia hartzen du, kulturaren ardatza delako eta, beraz, izaera soziala zein politikoa duelako.

Horrela, curriculum eskolan landuko den aukera kulturala baino ez da. Horrenbestez, arbitrarioa, hautatua, talde baten interes eta ideologiaren arabera. Eskolak, curriculumaren bidez kultura dominatzailea, estatuak nahi duen kultura finkarazten du eta, era berean, eskolako edukietatik kanpo geratu direnak -gure moduko herri txikiena kasu-, diskriminatuak izango dira, balioa galduko dute, ez dira ezertarako behar, ahazteko ez bada.



# G

## Curriculum arakatzen

Curriculum zerbait teoriko izatetik curriculum ofizial moduan ezarri arte ezin da bere osotasunean aztertu. Orduan araka daiteke norentzat edo nolako den, ikasleak lortzeko planteatzen diren helburuak zein edukiak dokumentu ofizial horretan zehaztuta agertzen direnean. Bien bitartean, teoria baino ez da, beti ere beharrezkoa baina zehaztasunik gabekoa.


Guk Euskal Herriko eskoletan indarrean dauden eta egon diren curriculum ofizialak arakatu ditugu: Euskal Herriaren curriculumaren ibilbidearen abiapuntua, alde batetik, Ferry Legea da eta, bestetik, Moyano Legea. Izan duten bilakaera kronologikoan, Hizkuntza eta Kultura gaiak non eta nola agertzen diren begiratuta, konturatzen gara Frantziako Hezkuntza Kontseiluak 1951n hartzen duela, lehenengoz, lekuan lekuko hizkuntza edo dialektok irakasteko ardura. Euskarari dagokionez, Bordeleko unibertsitatean sortuz Euskal Hizkuntza eta Literaturaren irakaskuntza antolatuko duen katedra.

Bitartean, beste aldaketa batzuk egon arren, 1982an moldatuko da berriro legea eta lekuan lekuko hizkuntza eta kultura irakasteko aukera agertuko du; gero, 1983ko abenduan emango dira horiek irakasteko orientabideak, ho-

rela finkatuz eskualdeko hizkuntza eta kultura irakasteko helburu pedagogikoak eta metodologia. Eskualdeko gertaera historiko guztiak jarri behar dira eskolan dagokien tokian, geografia, sorkuntza literarioa eta artistikoa, kondairak, ahozko tradizioak, kantak, musika eta dantzak, dekorazioko arteak zein altzairuenak edo eraikuntzakoak. 1995ekoa da lekuan lekuko hizkuntza eta kulturaren irakaskuntza berritzatzeko agindua. Bertan euron garrantzia aipatzen da, beti ere kultura nazionalaren osagai diren neurrian. Eta bi modutara antolatzeko bidea jartzen da:

1- Hastapenak, zeinetan hiru ordu dedikatuko zaizkion Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan eta 2- Irakaskuntza elebiduna deritzana, Haur Hezkuntzan berbeta landuz hasten dena eta, oinarritzeko, hizkuntzaren irakaskuntza eta hizkuntza horretan beste arlo batzuk garatzen dituen.

Hegoaldera bagatoz, 1857ko Moyano Legea da irakaskuntza sistema espainola ezarriko duena, eta aldaketa handirik barik mantenduko dena



1970eko legera arte. Aipatu behar

rekoa da, 1920ko hamarkadan auzo eskoletako irakaskuntza euskaraz egiten zela, nahiz eta jasotako kritiken eta salaketen eraginez, eskola elebiduna alboratuta geratu, zoritxarrez urte askotarako! Bitartean, 1945eko lege frankistaren menpean irakaskuntza guztia gaztelaniaz egingo da eta gaztelaniaren beraren irakaskuntza zaindu egingo da. 1970eko legea dator gero, oraindik frankismoan, ikaslea Espainiako errealtatean txertatzeko helburuarekin. Nahiz eta 1975ean hizkuntza natiboak irakasteko arauak ematen diren, argi geratzen da hizkuntza ofiziala eta nazionala zein den. Guri dagokigunez, hauxe izango da euskararen presentziaren hasiera, muga garrantzizkoa, bai pedagogikoki bai hizkuntza aldetik berritzatzeko baten abiapuntua delako. Hegoaldeko lurralde eskualde edo nazionalitate izendatzen ditu 1982ko hezkuntza legearen berritapenak, Espainiaren erreferentzian beti, baina irakaskuntza elebidunaren zabalkundea eta bertan erabiltzeko testuliburuaren zein bestelako baliabideen garapena bultzatu zuen.

1990eko hezkuntza lege berriaren ondoren, Nafarroak eta Euskal Autonomia Erkidegoak curriculum desberdina erabiltzen dute, biak oinarri berekoak, baina bakoitzean lurralde horietako izaeraren ezaugarri batzuk baino jasotzen ez dituen.



G

# G A I A

## Kultura erreferenteak

oinarrizko hezkuntza curriculumean



### Curriculum eta testu liburuak

Curriculumean arloka antolatzen diren edukien artean, Hegoaldean egungo curriculumean "Ingurunearen Ezaguera" arloa deritzana aukeratu dugu, Iparraldekoan "Geografie - Historie" eta "Sciences et Technologie" arloen parekoa. Beste eduki guztien garrantzia onartu arren, uste dugu ikaslearen ingurune hurbilari arlo honetatik egiten zaiola erreferentzia, eta egitekotan, arlo honexetan lantzen direla bereziki ikaslearen identitatearen eraikuntzarako funtsezkoak diren kulturaren gaineko ezagutzak. Ikerketan, ikasleari mugatzen zaion ingurunearen ezauzgarriak zein diren jakin nahi dugu. Nor den, nongoa den, lurralde erreferentea zein den, hots, zein eta nolakoa den irakaskuntzaren bidez azaltzen zaion mundua. Euskal Herria gaia 11 urteko ikasleek lantzen dute, Hegoaldeko Lehen Hezkuntzako 5. mailan eta Iparraldeko hirugarren zikloko CM2an.

Finkatu dugun arloaren barruan, kulturak eta hizkuntzak –euskarak eta euskal kulturak– ikaslearen identitatearen eraikuntzan duten eraginaz eta hezkuntzak eraikuntza horretan betetzen duen funtzioaz arduratzen gara, curriculumaren alderdi horiexek azalduz.

Testu liburua eguneroko lanaren oinarri moduan hartzeko nahiko arrazoi izaten dira, besteak beste, curriculumaren egokitzapenak eta zehaztapenak dituen lana eta konplexutasuna zein irakasleen prestakuntza falta. Testu liburua curriculum ofizialaren eta ira-

kaslearen artean kokatzen da, erabilgarria da, eta nahikoa da gelako lana bideratzeko. Irakasleen eta ikasleen esku jartzen du mailan edo kurtsoan zehar landu behar den guztia. Eta horrexegatik erabiltzen dira asko, hainbeste, non Apple-n esanetan testu liburuak diren eskola gehienetako curriculum benerakoak. Horrez gainera, tresna ideologikoa ere bada: liburuak ezinbestekoak dira estatuko hizkuntzaren eta kulturaren batasunerako. Berez XIX. mendean estatu-nazioak sortu zirenetik eta eurekin irakaskuntza sistemak-, liburuak estatuaren osterantzeko sinboloek –diruak eta banderak kasu– duten garrantzi maila bera dute, eta eurak bezala, bateratze sozial eta kulturalean hartzen dute parte.

Testu liburuan dagoen edukia argitaletxeak egindako irakurketaren araberakoa gertatzen da, argitaletxe bakoitzak bere "itzulpena" egiten du eta, ondorioz, edukiaren gaineko hainbat ikuspuntu agertzen dira. Irakasleak, beraz, curriculumaren bertsio bat aukeratu eta erabili baino ez du egingo. Horrela, testu liburuak eta argitaletxeak ikaslearen garapenean, ezagutzaren eraikuntzan eta identitatearen definizioan eragin zuzen zuzena izango du. Baldintzatu egiten dute ikasleek ikasiko dutena, bertan islatzen diren ezagutzen bidez gizarte eredu jakina proposatzen den neurrian.

Testu liburuen gainean burututako ikerketetan mezu idatzia zein ikonografikoa aztertu dira. Ez da nahikoa testu idatzia prozesu semantikoa balitz be-

zala arakatzea, ikuspegi pragmatikoa ere behar baitu, eta behar ere diskurtsoaren transmisio eta elkarreragin sozialerako tresna den neurrian. Marko linguistikotik kanpo ere badu eragina testu idatziak, zeren idatziz esaten direnak –edo esaten ez direnak– eragina baitute ikaslearengan, bere sentimenduetan nahiz pentsamenduetan ukitzen duelako, eta aldatu ere bai, kasu askotan.

**“Testu liburua tresna ideologikoa ere bada: liburuak ezinbestekoak dira estatuko hizkuntza eta kulturaren batasunerako. XIX. mendean estatu-nazioak sortu zirenetik, osterantzeko sinboloek -diruak eta banderak kasu- duten garrantzi maila bera dute”**

Funtzio kognitiboa dauka, edukiak azaltzen dituen heinean, bai eta munduaren ezagutza ere, hala indibiduala nola kolektiboa. Ikonografia ere lagungarria da, testu idatziarekin batera ikasleak ikasi beharreko edukia moldatu eta egituratzen baitu. Van Dijk parafraseatuz, esan daiteke testu liburuek darabilten kontzeptu, balio, iritzi edo elementu lexikalek zein ikonografikoek eredu sozialak eraikitzeko balioa dutela.

### Euskarazko testu liburuen eboluzioa

XVI. mendean Ramus-ek testuliburuak sortu zuenetik, edo Comenio-k bere *Didaktika Magna* argitaratu zuenetik, nabarmen aldatu da tresna pedagogiko hau.

Testuliburuak euskaraz argitaratu direnean ere izan dituzte aldaketak, hala edukiz nola itxuraz. Guk XX. mendea hartzen dugu aztergarritzat euskaraz argitaratu eta erabili denaren errepasoa egiterakoan, hiru epe edo aro finkatzeko. Lehen aroa 1876tik 1974ra bitartekoa da, Foruak galtzen direnekoa eta Eusko Pizkundeari dagokiona. Orduantxe eman ziren, euskaltzaleen ekimenari esker, euskarazko irakaskuntzan eta horretarako liburugintzan beharrezkoak ziren lehenengo pausoak. Bizkaiko Auzo Eskolen esperientzia eta lehenengo Ikastolen sorrera ere saio horretan kokatzen dira. Euskaraz irakasteko *Xabierto*, *Txomin ikasle*,

## “Testu liburuetan euskara eta euskal kulturari buruz azaltzen dena aztertzea jarri genuen helburutzat, ezen berez curriculum ofiziala argitaletxe guztientzat bera izan arren, bakoitzak edukiak modu desberdinean agertzen baititu”

*Pisia*, *Kimia* edo *Aurtxo* liburuak sortu eta erabiltzen dira. Bigarren aroak –1975etik 1991ra doanak–, euskarazko irakaskuntzaren goranzko bidez batera, euskarazko testuliburugintzaren indar hartzea ere badakar. Argitaletxeak sortzen dira –Elkar, Erein eta Ibaizabal, besteak beste–, baliabide didaktiko berriak euskaraz sortuz eta bultzatuz, eta kanpoko argitaletxeek testu liburuak zein beste material batzuk euskaratzen dituzte, eta lortzen dute Ikastolak eta

irakaskuntza elebidunak eraikitako merkatuan sartzea. Hirugarren aroa XX. mendeko azken hamarkadan kokatu dugu, zeina irakaskuntza elebidunak eta Ikastolak sendotu eta argitaletxeek testuliburu berriak plazaratzen dituzten aroa den, hain zuzen ere. Hegoaldean hezkuntza lege berriak testuliburu berriztapena bultzatzen du, eta Iparraldean euskaraz argitaratzen dira *Iguzki Lore* eta bestelako baliabide batzuk.

### Euskarazko testu liburuen azterketa eta ondorioak

Aro hauetako bakoitzean euskaraz argitaratu dena hartu dugu oinarritzat, nahiz eta Euskal Herriko eskoletako egoerak behartu gaituen gaztelaniaz eta frantsesez ekoiztutako testu liburu batzuk ere aztertzea: guztira 70 testu liburu arakatu ditugu eta eurretan 13.310 orri irakurri eta 22.228 ikono neurtu, kokatu eta deskribatu. Horietatik gehiena, %50,39 1992tik 2000. urtera bitartean ekoiztutako testu liburuei dagokie; %37,72 2. aroari dagokio, eta mende hasieratik 1974 bitartekoak dira %11,91. Mendearen azken hamarkadan testu liburuak Euskal Herrian saltzen dituzten argitaletxeak asko diren arren –gaztelaniaz zein euskarara itzulita–, euskal kulturarekin lotutako edukiak ez dira horrenbestean garatu. Adibiderako, testu liburuetako ikonografia hartuta, 1992-2000 bitarteko liburuetan %10,31k dauka euskal kulturarekin harremana, lehenago –1975etik 1991ra doanean–, %15,38k, eta mende hasierakoetan %6k. Azken kopuru honek txikiak dirudien arren, orduko liburuetan gertatzen dena islatzen du: hizkuntzak baldintzatu egiten du testu liburu bakoitzaren izaera, euskaraz daudenetan oinarritzatkoa da euskal kultura eta Euskal Herria da erreferentzia nagusia, eta frantsesez edo gaztelaniaz daudenetan ez da agertu ere egiten. Hauetan estatuaren marka da nagusi, espainiarra edo frantsesa.

1960 ingurutik honako testuliburu gaineko ikerketa arloa gero eta zabalagoa eta ikuspegi askotakoa izan da,





# G A I A

## Kultura erreferenteak

G

oinarrizko hezkuntza curriculumean

hainbat ildo zein eredu erabili dira idatzitako edukia eta ikonografia aztertze-ko. Ideologia, generoa, hizkuntza edo garapen historikoa nahiz euskal curriculumaren presentzia izan dira, besteak beste, Erriondo&Garagorri&Isasi, Murua, Lopez Atxurra, Calleja&Monasterio, Dávila, Argibay&Celorio, Nuño edo Bilbao&Ezkurdia&Perez Urraza ikerlariak burututako lanak.

Orain arteko lan guztiak begiratuta, ikusi dugu argitu gabe dirauela oraindik Euskal Herriari dagokion edukia zer eta nolakoa den planteatu behar-rrak. Testu liburuetan euskarari eta euskal kulturari buruz azaltzen dena aztertzea jarri genuen helburutzat, ezen berez curriculum ofiziala argialetxe guztientzat bera izan arren, bakoitzak edukiak bere modura agertzen baititu; ateratzen dugun ageriko ondorioa da batzuk Euskal Herriari lotuago azaltzen direla eta beste batzuk estatuari atxikiago.

Ikerketan, gaurko testu liburuetatik abiatu gara, eurek direlako osoenak, alderdirik ugariena agertzen dituztenak. Honetan, mezu idatzia eta ikonografikoa biak era batera irakurrita, euskal kultura ezaugarritzeko erabiltzen diren parametroak hiru multzotan bildu ditugu: ingurunearen itxura adierazten dutenak, hau da, mendi, ibai, herri

edo kostaldea lehenengo; gero hizkuntzari buruz esanekoa, edo euskararen gainekoa; eta jarraian, gainerako ezaugarriak: pertsonaiak, jaiak, dantzak, musika, kirola, mitologia edo ohituren agerpena.

Ondoko taulan islatu ditugu testu liburuetan euskal kultura azaltzeko erabiltzen diren ezaugarriak:

Oro har, **paisaia** da gora egiten duena, eta nabarmen egin ere, %42-3tik %74 ingurura: testu liburuek modu oparoan ematen dute Euskal Herriko paisaiaren berri, eta gainera, goranzko joera antzematen da. Badakigu, bestalde, paisaia, lurraldea irudikatze-ko, islatzeko, moduetariko bat dela.


Paisaia mota guztiak dute goranzko joera. Gero eta gehiago azaltzen dira

PAISAIA	GAINERAKO EZAUGARRIAK	HIZKUNTZA
mendi/ibaiak	jaiak	euskara
kostaldea/itsasoa	gastronomia	
herri/hiriak	pertsonaiak	
landaretza/klima	kirolak	
baserria	ohiturak	
	mitologia	
	musika/dantza	

Aldagai hauek ez dira ez testu liburu guztietan agertzen ez denak aipatzen, ez eta modu berean lantzen. Maiztasuna begiratu gero, aroz aroko desberdintasunak guztiz nabariak dira, taulan ikus daitekeen moduan:

mendiak nahiz ibaiak, edo landaretza edo kostaldea eta itsasoa, edo herriak eta hiriak. Baserrien agerpena, oster, gero eta urriago dela baieztatu genezake. Beraz, nahiz eta paisaia naturala de-ikus daitekeen moduan:

	1876-1974	1974-1992	1992-2000
<b>Paisaia</b>	%42,76	%61,65	%73,74
<b>Gainontzekoak</b>	%57,23	%38,44	%26,25
<b>Hizkuntza</b>	%0	%0,64	%0,44



dantzak eta musika gero eta gutxiago azaltzen dira. Oraintsu irakurri dugunez, milaka urtetan bizirik egon eta guganaino heldu diren mitoak eta sinesmenak galtzen ari dira.

Jaiei buruz ari garenean, azaldu beharra dago liburuetakojaiak zein motatako euskaljaiak diren: alde batetik, Nafarroarako testu liburuetan San Fermi-nak aurkitu ditugu -kasurik gehiengotan-, eta, beste alde batetik, Gasteiz, Bilbo edo Donostiako aste nagusiak eta danborrada.

Kirola eta gastronomia aldagaiekin gauza bera gertatzen dela baieztatu daiteke. Aipatuener artean, aizkolariak, -"se practica en las comunidades de Navarra y el País Vasco en España"- edo estropadak, edo euskal pilota.

Pertsonaietara jotzen badugu, aro guztietan gehienak gizonetzkoak direla ohartuko gara. Euskal kulturarekin lotuta agertzen diren pertsonaietatik %82,64 gizonetzkoak dira. Andreak eurak hutsean %2,76 baino ez dira agertzen, taldean, aldiz-gizonekin batera-, %14,58.

1970eko hamarkadatik aurrera اندrazkoen kopuruak gora egin duen arren, beti gizonetzkoekin batera agertzen da. Askoz gehiagotan daude gizonetzkoekin batera eurak bakarrik baino. Testu liburuetakojaiak guztien rankingean ere horrela dela baieztatzen da taulan. Gizonetzkoen presentziak garrantzi handia izan du beti testu liburuetan eta mende hasierako testu liburuetan aldagairik erabiliena da.

tzen denaren agerpena oso handia izan, aurkitzen dugun paisaia gero eta urbanoagoa da, herri eta hirien presentzia etengabeko gorakadan doala ikusten baita.

Paisaiaren aldagaiaren goranzko joera, bestalde, joera orokorra ere bada. Testuliburuetakojaiak guztiak alderatuta, erabiliener rankingean dago. Egon ere beti egon da gehien erabilitakojaiak hamar horien artean, gero eta gorgo, mendearen azken hamarkadan lehenengo lekuan jarri arte.

Oraingo testu liburuetan, Euskal Herriko lurraldeen artean, Gipuzkoari dagokio maiztasunik handiena, %32,85eko kopuruarekin. Bizkaiko lurren aipamenak daude bigarren lekuan, %30arekin, Araba gero, %26arekin, Nafarroa %9arekin eta Iparraldea %1,4arekin.

Uste dugu lurraldeen arteko desberdintasun hauek Euskal Herri osoaren presentziarik eza adierazten dutela. Horrenbestez, modu honetan lurralde-tasunaren irudi zatikatua irakasten zaie maila honetako ikasleei, ezen zatiekin identifika baitaitezke, baina ez zaie ematen Euskal Herriarekin identifika-tzeko bide handirik.

**Gainerako aldagaien** maiztasunari buruz esan daitekeena da argi dagoela beheranzko joera, gutxi gora behera erdira datorrela, %57,23tik %26ra. Horrez gainera, aipatzekoa da ezaugarri hauetatik gorako bidea hartu dutenak jaiak, gastronomia, ohiturak (San Joan sua edo Santa Ageda bezperako kantuen modukoak), eta kirolak direla. Denak ere Herriaren izaeraren ezaugarriak badiren arren, ezin ukatuko dugu alderik azalekoenak direnik. Ez dute ezer kolokan jartzen, edonork onartze-ko erakoak dira eta.

Ostera, mitologia, pertsonaiak,

	1. aroa		2. aroa		3. aroa	
1	gizonetzkoa	23,18				
2			gizonetzkoa	14,37		
3					gizonetzkoa	12,17
4						
5					mistoa	10,59
6						
7						
8						
9			mistoa	8,25		
10						

G

# G A I A

## Kultura erreferenteak

oinarrizko hezkuntza curriculumean

Beranduago, bigarren lekura jaitzen da, talde mistoaren goranzko joera rekin batera. Gaurko testu liburuetan gora egiten duena talde misto horren presentzia da, andrazkoak gizonezkoekin batera agertzen direna.

Rankingean ere, andrazkoak eurak bakarrik barik gizonezkoekin batera agertzen dira. Curriculumean, generoen arteko desberdintasunak zaindu behar direla aldarrikatu arren, oraindik badago lanean jarraitu beharra.

**Hizkuntzaren arloan**, testu libururik zaharrenei begiratzen badiegu ia azalpen guztiak gaztelaniari buruzkoak direla ohartuko gara. 2. aroan hasita –1980ko hamarkadan–, euskararen gaineko azalpenak jorrotzen dira testu liburuetan, euskaraz edo erdaraz ikasi arren euskara azaldu egiten den gaia da. Kasu batzuetan estatuko hizkuntzen arteko beste baten moduan agertzen den arren, euskara Euskal Herriko hizkuntza da testu liburu gehienetako azalpenetan. Mende hasierako testu liburu guztietan –euskaraz daudenean–, euskara euskaldunen nortasun zeinua izatetik, Europako hizkuntzarik zaharrenetakoa eta zaindu beharrekoa izatera pasa da. Horrez gain, mapak azaltzen dira hizkuntzarekin harreman estuan, euskalkien banaketa, lurralde euskaldunak edo euskararen mugak adierazten dituzten mapak. Euskal Herriko mapak badira ere, kasurik gehienetan –%66 inguruan–, euskararen gaineko azalpenetan autonomia erkidegokoak edo Espainiakoak dira hortik gorakoak.

Testu liburuetan euskal kultura ezaugarritzeko erabiltzen diren aldagaien artean goranzko balioak paisaia, kirolak, jaiak eta gastronomia dira. Beharrezkoak, ostera, euskara, mitologia, pertsonaiak eta musika eta dantzak dira.

**Euskal Herria, Erkidegoa, EAE... kontzeptuak**

Euskararen eta euskal kulturaren lekutzeari dagokionez, testu liburu bakoitzean ematen zaien kokapena edo erreferentzia aldatuz joanda, bai aro zaro eta baita argitaletxe bakoitzaren jokabidean ere. Batzuetan ingurune soziokulturala darabilte, Euskal Herria erreferentziatzat hartuta. Beste batzuetan ikuspegi hegemonikoa erabiltzen dute, erreferentziatzat estatua edo esta-

tuaren antolaketa administratibo-juridikoa hartuta. Ikuspegi bien nahastea legez, ikuspegi nahasia izendatu duguna dago, testu liburuetan eduki asko inon lekutu barik, erreferentziarik gabe geratzen baitira. Aipamen berezia merezi du ikuspegi juridikoak, egoera autonomikoa adierazten duenak, ez baita erabili ere egiten 1980ko hamarkada arte. 1989an agertzen da Santillana argitaletxearen eskutik, eta aurrerantzean garrantzi handia hartuko du.

Zehaztu barik uzten diren edukien kopurua, inongo testuingurutan kokatzen ez direnena, handia da Hegoaldeko testu liburuetan –%40 eta 60 bitartekoa–.

**Hizkuntzari dagokionez**, argitaletxe bakoitzak jokabide desberdina darabil: Santillanak Euskal Herria du testuingurua, erkidegoa ere bai, baina kasu batzuetan nahastu egiten ditu Euskal Herria eta EAE. Edebérentzat hizkuntzak izaera estatala du. SMrentzat ere bai gaztelaniaz dauden testu liburuetan; euskarazkoetan, ordea, ikuspegi autonomikoa darabil, noizean behin nahastuta agertzen den arren. Edelvi vesek ez dio aparteko garrantzirik ematen hizkuntzaren gaineko azalpenari. Bruñok Euskal Herria du testuingurua hizkuntza lekutzeko, estatua ere badarabilen arren, eta nahasian ere datu apur batzuk uzten ditu. Anayak ikuspe-




gi estatala eta askotan zehaztu gabea darabiltza. Baina jokabide desberdina erabiltzen du, D marka duen liburuan (Anaya-Haritz) Euskal Herria eta euskara elkarri lotzen baitizkio. Elkarrek Euskal Herria du oinarri Ereinekin batera.

**Gainerako ezaugarrien** grafikoan ikusten da Santillanak gehienbat ikuspegi nahasia darabilela. Nahiz eta erkidegoari, estatuari edo Euskal Herriari egiten dion erreferentzia, ikuspegi hegemonikoa agertzen du nagusiki. Edebék ikuspegi estatala du nagusi aldagai hauetan, eta batzuk erkidegoan kokatzen ditu, baita nahastuta ere. Oso antzekoa da SMren jokoera, ikuspegi juridikoari indar handiagoa ematen dio eta. Edelvivesek ere puntu berean ditu datuak, erkidegoan kokatuta batzuk eta gehienak estatuari erreferentzia eginez. Bruñorena nahasia izateaz gain lekutzea ere estatukoa da eta, Euskal Herrian oinarritutakoak badituen arren, halakoak gero eta urriagoak direla ohartuko gara, eta azkeneko testu liburretan ikuspegi hegemonikoa nagusitzeraz heltzen da. Anayaren zehaztapenik eza ere erraz ikusten da grafikoan, eta zehazten dituenetan ikuspegi juridikoa eta estatala agertzen ditu. Elkarrek lehengoan dirau, Euskal Herria du oinarri. Ereinek ere antzera.

Ikuspegi hegemonikoa da argitalexerik gehienak erabiltzen dutena, alegia, estatuarekin edo bere ordezkodun erkidegoarekin erlazionaturik eskaintzen dena.



Gainontzekoak (%-tan)




Paisaia deritzan aldagaiaren gaineko datuetan argi ikusten da Santillana argitaletxeak darabilen jokabidea: paisaiak Euskal Herrikoak zein EAE edo Nafarroakoak dira, baina bestalde, estatuaren erreferentzia ere badarabil eta ikuspegi nahasian datu asko geratzen dira. Edebék argiago jokatzen duela ikusten da: erkidegoa da oinarria, baina estatua ere bai. SMk estatuan lekutzen ditu paisaiak, erkidegoari presentzia handia emanez. Edelvivesenek estatua dute erreferentzia nagusia, gutxi batzuk erkidegoarekin lotuta agertzen

badira ere. Bruñok hauek erabiltzen ditu: testuinguru nahasia, erkidegokoa zein Euskal Herrikoa, gehienak ikuspegi hegemonikotik. Anayak erkidegoko paisaia du nagusi, ikuspegi nahasiarekin eta estatalarekin batera. Elkarrek Euskal Herriko paisaia darabil gehiengotan, Ereinek ere paisaia Euskal Herrian lekutzen du.

Edozelan ere, ikuspegi hegemonikoa da gailentzen dena, alegia, erreferentzia moduan estatua eta erkidegoa erabiltzen dituen.

Paisaia (%-tan)





# Euskal kulturaren moduan agertzen diren paisaiak, hizkuntza eta gai-nontzekoak, guzti-guztiak, ikuspegi hegemonikotik lantzen dira, dela egoera autonomikoa islatuz, dela estatuaren markarekin, den-denek galdu dute artean izan duten Euskal Herriarekiko lotura

Azken batean, ondorio gisa baieztatu dezakegun hau da: euskal kulturaren ezaugarri moduan mugatzen diren paisaiak, hizkuntza eta gainerako guzti-guztiak, ikuspegi hegemonikotik lantzen dira gaurko testu liburuetan. Dela egoera autonomikoa islatuz, dela estatuaren markarekin, den-denak galdu dute orain arte izan duten Euskal Herriarekiko lotura. Euskara da salbuespen bakarra, Euskal Herriarekin lotzen baita %46an. Estatuarekiko edo erkidegoarekiko erreferentziak gora egin badu ere, oraindik ez da guztiz galdu ikuspegi soziokulturala.

## Tesiaren ondorio nagusiak

Amaitzeko, tesi honen ondoriorik aipagarrienak honelaz errendatuko genituzke:

1- Hiru hizkuntzatan, euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz, ekoizten diren eskolarako testuliburuak ez dira molde berekoak.

- Frantsesezkoak zehatzak dira, betiere estatuaren aldeko, eta ez dute Euskal Herriaren berririk ematen.

- Gaztelaniazkoak erdaldunek sortuak dira, gainera estatutik sortuak, eta Euskal Herria saihestuz egoera autonomikoa lantzen dute.


- Euskarazkoak direnen artean, badaude euskaldunok euskaldunontzat sortuak eta baita itzuliak ere, hizkuntza itzultzen zaienak, baina edukari erdal-tasunean eutsiz, eta euskaraz egon arren, ikasleen buruak erdalduntzen dituztenak, adierazlea euskaraz dakarten arren adierazia erdalduna eskaintzen dutenak.

2- Erdal herrietan sortutako testu liburuetan aipatzen da Euskal Herria, baina izenez, ez izanez, izaera autonomikoa eta estatala jartzen diote eta.

3- Euskara ez da ehuneko ehunean Euskal Herriaren testuinguruan kokatzen, sarritan estatuko hizkuntzen artekoa da, edo erkidegoko mugetan gertatzen da. Nafarroan eta Iparraldean estatuko hizkuntza da ia erreferentzia bakarra.

4- Euskal Herriaren izaera azalekoena lantzeko joera gero eta handiagoa da. Paisaia, jaiak, kirolak eta gastronomiako gaiak, hau da, Euskal Herriko tasunetatik orokorrenek, gora egin dute testuliburuetan.

5- Testu liburuetako presentzian nortasunari eta identitateari lotuen



dauden ezaugarriek behera egin dute, hala hizkuntzak nola pertsonaiak edo mitologiak.

6- Hau horrela izanik, Euskal Herriko neska-mutilek, hala Iparraldean nola Hegoaldean, ezin dezakete euskararen lurralde osoa errealitate adierazgarritzat jaso testuliburuetan.

7- Finean, euskara diglosian kokatuko da, eta baita herri honen kultura guztia ere.

G A I A  
Kultura erreferenteak  
oinarrizko hezkuntza curriculumean

G

# Pedro Aranburu

Euskal Herriko Ikastolen  
Konfederazioko lehendakaria



Uste dut Euskal Herriko  
gizarteari asko ematen ari  
garela eta oraindik ikastolekin  
zorra dagoela, zenbait hartzeko  
daukagula, eta ez preseski  
dirutan



# Pedro Aranburu

E

Gure mugimenduaren ezaugarrietako bat gurasoen partaidetza baldin bada eta ahuldu egin dela ikusten badugu, bizkortu egin behar dugu. Gurasoei esan behar diegu gure munduan beraiek oso zati garrantzitsua direla, ez direla haurrak ikastolara eramán, jaso eta notak hartu soilik egiten duten guraso arruntak

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko lehendakari berria dugu Pedro Aranburu. 23 urtetan medikuntzan diharduen mallabitar hau Eusko Jaurlaritzak 1981ean sortutako Osasun eskolarra programa berezia martxan ipini eban beste zazpi sendagilerekin batera. 1991an mediku lanetara itzuli zen Zomotzako osasun zentrorra, eta geroztik han jarraitzen du.


Urte gutxiago daramatza ikastolen munduan, baina urte trinkoak eta mardulak izan dira. Seme-alabak Gemikako Sebero Altube ikastolan zituelarik hango lehendakariorde izendatu zuten 1990ean eta 1996an lehendakari. Urtebete berandago BIE Bizkaiko Ikastolen Elkarteko batzordeko kide izatera pasa zen Busturialdeko ikastolen ordezkari moduan. 2000. urtean BIEko lehendakariorde izendatu zuten eta 2001ean lehendakari. Urtea pasa orduko kargua utzi behar izan du Konfederazioko lehendakari lanak egiten hasteko. Antonio Camposen lekukoa hartu duen gizona gogotsu, indarrez eta baikor topatu dugu.

**Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak egitura juridiko berria du eta elkarte europarra bilakatu da. Zer dakar aldaketa horrek?**

Orain arte elkarte kulturala ginen eta legalki seaskak ezin zuen parte hartu. Hori dela eta, muga hori gainditu nahian genbiltzan. Hasieran kooperatiba bat sortzeko aukera aztertzen ari ginen. Interes Ekonomikoko Europar Elkarteak, ordea, mugaz gaindiko elkarte bat sortzeko aukera ematen zuen. Europatik datorren lege batekaratzen du eta Madril edo Parisek ez dute zer esanik. Azkenean, aukera hori egin dugu; orain Euskal Herri osoko ikastolen elkarteak europar elkarte batean batu-rik gaude.

**Zer eragin izango du Konfederazioaren sorrerak Ikastolen Federazioetan?**

Juridikoki Federazio bakoitzak bere lurraldean lanean jarraitzen du eta Konfederazioa gauza komunetarako da. Federazioen artean zerbait komunean egiteko adostasuna lortzen bada, Konfederazioak kudeatuko du. Baina gainontzean, Federazioek ikastolen etxeak izaten jarraituko dute. Ikastola guztien baietzarekin sortu da Konfede-



razioa, baina ikastolek harremana Federazioekin izango dute, eta hauek Konfederazioarekin. Antolaketa behetik gorakoa da.

### **Konfederazioak Federazioen arteko harremana eta lankidetzak bultzatzeko balioko al du?**

Balio beharko luke eta hori argi ikusten dugu. Gero ikusiko dugu zer ematen duen, baina horretarako izan beharko luke. Konfederazioa ez dugu sortu denbora pasatzeko, baizik eta beharrezkoa ikusten dugulako zerbait komunean lortu nahi dugunerako.

### **Zein dira Konfederazioaren erroka gusiak?**

Gure errokarik handiena abendua bitartean 2003-2007 Plan Integrala arloka garatzea eta gauzatzea da. Arloak sei dira: ikerketa-garapena, hezkuntza, egonkortasuna, eraketa, komunikazioa eta enpresa.

Lurralde bakoitzak bere plan integrala egin zuen, behetik hasita, hots, ikastoletatik. Ikastola bakoitzak bere ahuldade eta beharrianak detektatu zituen eta ikastola guztien txostenekin Federazio bakoitzak bere plana egin zuen.

Plan horietatik Euskal Herriko Plan Nazionala egin zen, apirilaren 20an onartua Altsasun egin zen Biltzar Nagusian.

Orain, Ikastolen IV. Batzarraren bigarren zatia egingo dugu eta Plan Integralaren helburuak eta estrategiak nork gauzatuko dituen zehaztuko dugu; hau da, nor izango den egile, nor ardurdun, nor lankide eta nor koordinatzaile. Ardura horietako batzuk Federazioen esku geldituko dira eta beste batzuk Konfederazioaren esku.

2003an martxan jartzea nahi dugu. Ondoren, bi urtero ebaluazioa egingo da eta azken ebaluazioa 2007. urtean egingo litzateke.

### **1993ko publikazioetik ia 10 urte pasa dira. Zer balorazio egiten duzue?**

Guretzat zatiketa garrantzitsua izan zen 93koa. Ezin dugu esan geratu gine-

nok irabazi edo galdu egin dugunik, gai honetan hitz hauen erabilera ez zait baxterez gustatzen. Kriterio asko erabili ziren ikastoletan erabakia hartzerakoan; bakoitzak bere mementuan erabaki zuena erabaki zuen eta erantzukizuna bakoitzarena da.

Ikastola askok arazoak eduki zituzten, batez ere ekonomikoak, eta itotasun horretan nahiko gizatiarra da publikatzeko pausoa ematea. Baina beste gauza bat da horren truke zure ikastola mundua, zuk ezagutzen duzun moduan, partaidetza sozialeko ikastola mugimendua, aldatzea. Izan ere, ikastola "pribatutik" sare publikora pasatzeko guk dauzkagun ezaugarrietatik batzuk galtzea zekarren eta horietako bat gure autonomia.

Egia da lehen mementua gogorra izan zela, eta ahuldade fase bat egon zen. Hala ere, partaidetza sozialeko ikastolak hasi gara sinesten oraindik gairela aurrera ateratzeko.


### **Partaidetza sozialeko ikastolak esan duzu. Haatik, asko dira pribatuak zaretela diotenak.**

Nahiz eta batzuk "pribatuak" gairela esan, gure diruak ez dira inora joaten, ez da negozio bat. Diru puska bat soberan gelditzen bada, jeneralean ez da horrelakorik gertatzen, hurrengo urterako behar den zerbaitetara bideratzen da. Herritik sortutako eta herrirako gabiltzan eskolak gara, partaidetza sozialeko ikastolak. Ez gara ez pribatuak eta ez publikoak. Gaur egun dagoen publikotasun hori gurekin ez dator bat, mementuz behintzat.

### **Ikastolak oraindik aintzatetsi gabe daudela esango al zenuke?**

Kezka hori badaukagu, gure artean eztabaidatzen dugu eta Eusko Jaurlaritzari ere askotan esaten diogu. Nik uste dut zerbait gehiago behar dugula. Nik uste dut Euskal Herriko gizarteari gauza asko ematen ari garela eta oraindik ikastolekin zorra dagoela, zerbait hartzeko daukagula, eta ez preseski dirutan.

Gure ibilbidean zehar hainbat proiektu, egitasmo eta esperientzia



eraman ditugu aurrera ikastolen beharretatik abiatuta eta aitzindari izan gara. Horren aurrean, administrazioak antzeko egitasmoak ikastetxe guztietara orokortu ditu gure esperientzia eta ahalgina aintzat hartu gabe, gurekin ezertarako kontaktu gabe. Azken finean, gure lana aintzatetsi edo errekonozitu gabe.

Horren adibide garbia dugu Haur Hezkuntzako kasua. Ikastolen sorreratik hasi ginen lanean Haur Hezkuntzako haurrekin eta atzetik beste eskolek jarraitu ziguten. Gaurko egunean, ikastoletan 2 urteko gelak oraindik finantzatu gabe daude.

Beste adibide bat ingelesaren ezarpen goiztiarrarena dugu. Ikastoletan ingelesa 3-4 urterekin irakasten hasi eta berehala orokortu zuen administrazioak bere eskolean. Eta hori noren lana da? Hezkuntza Sailak onartu izan du gure ekarpena, baina askotan edo ia beti hitzetan gelditzen da eta zerbait gehiago beharko genuke.

### **Zer?**

Agian hirugarren sarea sortzea?... Akordio berezi bat ikastolekin? Posible izango litzateke. Hori egoera politikoko baldintzatzen du. Egoera politikoa

# Pedro Aranburu

E

## Kalitate

Legearen aurrean,  
Eusko Jaurlaritzak  
ez dakit zer egiteko  
gai dela esan arren,  
lege horren azpian  
egongo litzateke.  
Orduan, politikariek  
beraiek ikusi  
beharko dute  
Euskal Gobernu  
bezala noraino  
iristeko prest  
egongo liratekeen.  
Guk, ikastoldk,  
geure eredia  
defendatzen  
jarraituko  
dugu

lasaiagoa balitzateke, gauzak normal moduan ikusiko genituzke eta kito. Agian gobernu batek bere pausoak justifikatu egin behar ditu, baina zer justifikazio gehiago behar ditu benetako ekarpenak eginak baldin badauzkagu? Nik nahiko nuke ikastolen mundurako akordio berezi bat.

Zer izango litzateke hobea hirugarren sare bat sortzea ala akordio berezi bat egitea eta kito? Ez dakit. Ez dugu onartzen pribatuak garenik entzutea, ez dugu nahi ere. Pribatuak al gara, besterik gabe, publikoak ez garelako? Eta nork esaten du publikoak ez garenik? Zer da publikotasuna? Eusko Jaurlaritzak jabegoa izatea eta berak erabakitzearazterako emango dizun dirua? Hori al da publiko izatea? Ez dut uste. Hori administratiboki publikoa izatea da.

**Hainbeste urteko ahalegin eta esfortzuren ondoren, ez al dago tentaziorik beste publikifikazio fase bat irekitzeko?**

Hori ere aztertu da gure eztabaidetan. Beti esan dugu euskal eskola nazionalaren aldekoak garela. Horretarako pauso handi bat eman beharko da; gure aldetik ere bai, baina gehienbat gaur egungo administrazioaren eskola publikoaren aldetik.

Anjeles Iztuetak esan du ikastetxeei

autonomia gehiago ematea nahi dutela eta gurasoen partaidetza bultzatzea. Gure 14 ezaugarri komunetan sartuta daude bi horiek eta egunero gauzatzen ditugu. Autonomia hori Jaurlaritzak eman gabe badaukagu eta gurasoen partaidetza ere bai. Nahiz eta diru laguntzarik ez jaso, interesgarriak iruditzen zaizkigun programak garatzeko autonomia daukagu, eta horrek garrantzia dakar ikastolen mugimendua-  
rekiko.


Beste kontu bat da administrazioak berak ematen duen dirua kontrolatzea eta guk ez daukagu arazorik horien gaineko kontrola egin dadin. Bataren eta bestearen arteko konpromiso bat egon daiteke eta horren arabera kontratu programak egin, adibidez.

Publikotasunaren kontzeptua ere zehaztu eta garatu egin beharko litzateke, eta ez gaur egungo arekin gelditu; eskola publikoari beste giro zabalagoa eman beharko litzaioke eta gure munduari gure ezaugarri komunak garatzen utzi. Horrela baijoango ginatekeela Euskal Herriko Eskola Nazionalaren bila.

**Ikastolen ezaugarri garrantzitsu bat autonomia da eta beste bat gurasoen partaidetza. Ez al da pixka bat moteldu azkenaldian?**

Bai, baina hori orokorra da. Gizarte





0-  
soa,  
eta Euskal Herrikoa ez da desberdina, lasaitu egin da. Ikastolak ere izugarritzko zerbitzuak eskaintzen ditugu eta gurasoak ondo eta lasai gelditzen dira. Hala ere, batzordeetan baldin badaude bileretara joaten dira eta horrek behintzat gurasoen presentzia ziurtatzen du.

Gizartean partaidetza galdu den arren, nik uste dut ikastolen munduan oso partaidetza dinamikoa dagoela eta areagotzeko eta pizteko gogoz gaude. Adibide garbiak ditugu ikastolen jaialdiak (Ibilaldia, Kilometroak...) antolaterakoan gurasoek izaten duten partehartzea eta erantzukizuna.

Gure mugimenduaren ezaugarrietako bat gurasoen partaidetza baldin bada eta ahuldu egin dela ikusten badugu, bizkortu egin behar dugu. Gurasoei esan behar diegu gure munduan beraiek oso zati garrantzitsua direla, ez direla haurrak ikastolara eraman, jaso eta notak hartu soilik egiten duten guraso arruntak. Ez, hori baino gehiago dira.

### **Aztertu al duzue ikastola bakoitzean nola eragin gurasoen partehartzea areagotzeko?**

Egoera desberdinak daude, baina bai, gure teknikoak plantxo bat egiten ari dira komunikazioaren barruan. Ez da informazio bonbardaketa bat garatu behar, baina zenbat eta komunikazio gehiago bideratu, hobe. Horretarako hainbat bide daude. Esate baterako, ikastolara datozen gurasoei nolako ikastetxera datozen azaltzea. Hori lantzen egin behar da eta horretarako plan bat behar da.

Ikastola bakoitzak bere autonomiaren arabera egingo du; Federazioak eta

Konfederazioak ideiak emanez eta beste ikastoletan egiten denaren berri emanez lagunduko diete.

Bestalde, irakasleak ez ezik, gurasoak ere prestatu egin behar direla uste dugu. Badakigu lehen, ikastolak sortu zirenean, gurasoek ez zeukatela prestakuntza berezirik. Orain, ordea, urte askotako esperientziaren ondoren, nolako ereduak daukagun eta nola aberastu dezakegun ikusten dugu, eta aukeretatik bat da gurasoentzako prestakuntza eskaintzea guraso konprometituek izan daitezkeen.


### **Euskara eta euskal kultura ere ikastolen ezaugarri dira. Zerbait gartzen ari al zarete euskal curriculumaren inguruan?**

Euskara eta euskal kultura gure ardatz dira eta egunero ari gara lantzen. Euskal curriculumari dagokionez, Konfederazioan proiektu bat daukagu mahai gainean eta gartzen ari gara. Giza baliabideak eta baliabide materialak jarrita daukagu eta zehazten ari gara ikastolak nola ikusten duen euskal curriculumak; hau da, Euskal Herriko 16 urteko haur batek zer jakin beharko lukeen.

Eusko Jaurlaritzak ere ari da horretan eta harremanetan egon gara. Dena dela, momentuz ez dugu adostasunik lortu eta guk geurea bultzatzea pentsatu dugu. Agian denon arteko adostasuna lortu beharko genuke aurrerago, baina momentuz gure pentsakeratik lantzen ari gara.

### **Kalitate Legeak ekarriko duena ezagutzen ari gara: zuzendaritzari ahalmen handiagoa ematen dio, gurasoak apenas aipatzen dira... Zer diozue horren aurrean?**

Guk beti esan dugu ez dakigula zergatik eta zertarako sortu den Kalitate Lege hau Madrildik. Beno, bai, badakigu; goitik dena kontrolatu nahi dutelako. Horren saiakera bat da. Nik uste dut ez dutela baloratu nolakoa den egoera eta nola hobetu daitekeen. Lege bat egin dute, besterik gabe. Frankoren garaian beste modu batera egiten zen, eta



gaur egun paperekin, legezko ez dakit zer tontokeria erabiliz... Azken finean, gizartea berotu nahi da.

Bestalde, nahiz eta Eusko Jaurlaritzak hezkuntzan hainbat botere eduki, legea martxan jartzen badute, borroka egon liteke.

### **Nolako borroka?**

Eusko Jaurlaritzak ez dakit zer egiteko gai dela esan arren, lege horren azpian egongo litzateke.

Orduan, politikariek beraiek ikusi beharko dute Euskal Gobernu bezala zenbaterainoko borroka daukaten. Guk, ikastolak, geure ereduak defendatzen jarraituko dugu.

Nolakoa izango den borroka? Ez dakit. Barrura begira geure materialak erabiltzeko ahalegina egingo dugu. Eta kanpora begira, gizartean zabaldu eta lotu behar den guztiarekin lotuko gara. Bihar izugarritzko liskarra muntatu behar bada, prest egongo gara. Egon gara lehen ere, eta egongo gara orain ere hala behar bada. Euskal Herriaren kontra jotzeko modu asko daude, eta horietako bat hau da. Horregatik, hezkuntza arloko guztiok elkartu beharko gara. Lehen ere irten gara kalera, adostasun gehiagorekin edo gutxiagorekin, eta oraingoan kalera irten behar bada serioago hartu beharko ditugu gauzak.

# Teknologia Berriak



## elkasbide proiektua

Haur eta Lehen Hezkuntzan IKT Bak epe motzean integratzeko modua

---

**Nekane MENDIZABAL**

Donostiako Ikasbide Ikastolako irakaslea

---

**Jose Miguel Blanco**

EHUko Informatika Fakultateko irakaslea

---

**JoxeMi Correa**

EHUko Irakasle Eskolako irakaslea

---

Gizartea gero eta presio gehiago egiten ari da Informazioaren eta Komunikabideen Teknologia Berriak (IKTB) ikasgeletan sartzeko. Une honetan, besteak beste, *eEurope* programa europarraren helburua Europako hiritar guztiei kultura digitala eskaintzea da, baita irakasleei trebatzeko aukerak eskaintzea ere. Guk jardura esanguratsuak garatzeko modu gisa defendatzen ditugu zentroetan teknologiaren erabilera konstruktibista eta proiektuen garapena. Era berean, jardura horiek gure errealtate sozialari egokitutako eskolako kultura sortzen eta irakasleak eta ikasleak trebatzeko aukera

erango duten eta, pixkanaka, familiak inplikaturako dituen proiektuak sortzen lagundu behar dute.

Artikulu honetan Donostiako Ikasbideko Haur eta Lehen Hezkuntzako zentroan IKT Bak integratzeko proiektuaren motibazio, jarraibide eta ezaugarri nagusiak aurkeztuko ditugu. Zentroaren baldintzak, teknologia berriak integratzeak ekarriko duen aldaketa eta erronka, eta aurre egin beharreko zailtasunak aztertuko ditugu. Bi programa dira proiektuaren ardatz: *eSorkari* (aldizkari digitala) eta *eTruke* (posta elektronikoa erabiltzeko jardura, bigarren hiru hilekoan Katalunia-ko eskola batekin egingo den truke-planaren berrun ikasle- en bisita osatzeko eta prestatzeko). Programa horiek zentroan IKT Bak integratzeko pauso instituzionala emateko balio dute.

Teknologia berrien inguruko jarduerak eskoletan oso irregularak diren arren, irakasle eta ikasle guztiek esaten dute ikastetxeetan IKT Bak ikasi eta erabiltzeko beharra dagoela eta berarek aprobetxatzea zentroen hezkuntza proiektuen pertzepzioen inguruko faktore garrantzitsu gisa hartzen da. Sozialki presio mediatikoa egiten da, baina askotan kaltegarria da eta frustrazioa eragiten du; izan ere, teknologia informatikoa tarteko dagoenean, ez dago trebetasun nahikorik. Baina oraindik ere egiten da presioa, eta, zentroetan ekipamendu informatikoa izateko neurriak hartzen ari badira ere (esate baterako, Eusko Jaurlaritzaren PREMIA programa) eta erakundeek aplikazio informatikoak ezagutu nahi dituzten hiritarrentzat ikastaro asko diruz laguntzeko eta familiek teknologian egindako gastuak ordaintzen laguntzeko ekimenak martxan jartzen ari badira ere (adibidez, *Konekta Zaitetz!* programa), ez dago eredu argi eta eskuragarri IKT Bak era konstruktibistan<sup>1</sup> erabiltzeko. Hau da, abileziak ikasteko eta garatzeko eredu, tresnak erabiltzeko ezagutza teknikoak lortzeaz gain, epe ertain eta luzera Informazio Gizartearen Teknologia konstruktibista integratzeko irakasleen eta eskolen lana argitzen eta dinamizatzen lagunduko duen planteamendua egiteko. IKT Ben erabi-



leran argitasun falta ere badagoela baieztatera ausartzen gara, arazoa ez dela teknologikoasoilik. Orain arte teknologia eskura izateko zailtasunek horien erabilera nabarmenagoa eta pedagogikoa blokeatu ahal izan dutela badakigu; arazo horretan eragin duten faktoreak ekipoen prezioa, porrot egiteko beldurra eta ezagutza pedagogikoen aldean informatikoak saritu izana daude.

Komunikazio honetan Donostiako Ikasbide Ikastolan teknologia berriak integratzeko garatzen ari diren esperientzia aurkezten dugu. Horretarako, esperientzia horren testuinguru sozialaren eta IKT Bak ikastetxeen bizitzan integratzeko behararen analisisia hartu dugu abiapuntutzat. Jarraian, IKT Bak ikastetxeetan ezartzeko erabilitako ikuspegieta izan ditugun muga batzuk berrikusiko ditugu. *elkasbide* programaren ezaugarriak deskribatu ondoren, gure esperientziaren lehen ondorioak eta balorazioak aurkeztuko ditugu.

### Egoera soziala eta horrek ikastetxeetan IKT Bak integratzeko beharrenean duen eragina

Egoera soziala aldatzen ari da, eta irakasleen eta eskolen zeregina ere aldatzen ari da. IKT Bak irakasleek –teorian– naturaltasunez erabili behar dituzten baliabideak dira, eta geletan eta eskoletan zeregin egokia eman behar diete. Horrenbestez, ezinbestekoa da irakasleak, neurri batean, bere profesionaltasuna berregitea; eta horretarako teknologia berrietan ongi moldatzen eta bere jardueraren funtzioetan behar bezala erabiltzen lagunduko dioten gaitasunak garatu behar ditu.

Irakasleak bere profesionaltasuna garatzen du eta ikasleak erabiltzaile eta teknologo gisa trebatzen dira. Baina benetako kultura digitala izateko, tresna berrien erabilerari zentzua eman behar zaio eta aplikatzeko testuinguru garrantzitsuan kultura profesionala birstortu behar da. Horrela, IKT Bak integratzeko arazoarekin, irakaskuntzan aspalditik zintzilik dauden arazoak de-

tektatzen dira: zein teknologiarekin, teknologia zertarako eta nola erabili. Gure ustez, IKT Ben erabilera jarduera garrantzitsuetara bideratu beharko litzateke, eta eredu konstruktibista erabili beharko litzateke horretarako.

Azpiegitura teknologikoei dago kienez, gaur egungo egoerak aurrerapen garrantzitsua izan du; baina gure eskoletan egin diren inbertsioen eta gastuen ondorioz, eskolak ordenagailuz bete dira eta, kasu askotan, gutxiegi erabiltzen dira. Erosten denetik erabateko etekina atera arte produktu informatikoa asko garestitzen duten hainbat faktore daude eta, gainera, desorientazioa eta frustrazioa sortzen dute. Teknofobia izatera iristen ez bada ere, teknologiaren alde erakargarria eta bere erabilera potentziala mugatu egiten du (komunikazio hau idazteko garaian eta Ikasbide ikastolako ekipo informatikoen gertaerak berrikusteko garaian, irakasle batek zentroko baldintza informatikoen inguruan hauxe esan zuen: *hemen ez dugu behin ere "ordenagailu bat ongi" izan*. Esaldi horrek irakasle askoren sentimendua jasotzen du eta ikastetxe askotan, zoritxarrez, ohikoa da). Oso zaila da ikastoletan dauden teknologiaren aukera informatiko guztiak erabiltzea, funtzionamendu arazoak daudelako: birusak, ekipoen arteko loturak, matxurak eta abar. Gainera, as-


kotan, ekipo informatikoen eta beren osagarrien hornitzaileek ez dute mantentze zerbitzu egokia eskaintzen.

Une honetan kalitatezko hezkuntza proiektua sortzeko zailtasun horiek dauden arren, arazoak alde batera utzita, IKT Ben erabilera arrunta bilakatzen ari da, eta, epe oso motzera, ez da nahikoa izango eskoletan informatika gela izatea; baliabide horrekin hezkuntzan edo komunikazioan etekina lortzea izango da helburua (gauza bera gertatuko da etxeetan eta erakundeetan).

### IKT Bak ikastetxeetan ezartzeko erabilitako ikuspegiaren mugak

Guk dakigula hainbat zentrotan esperientzia interesgarriak gauzatzen ari dira, baina, horrez gain, boluntarismoan sostengatuta asko inprobisatzen ari dira eta, oraingoz ez dago berme pedagogiko nahikoa ematen dituen esperientzia fluxurik, ez eta integrazio eredurik ere.

IKT Bak zentroetan sartzea gai korapilatsua da. Lehenik, ez dago ekiporik, iristen direnean ez dabilta ongi edo jendeak ez daki horiek erabiltzen. Trebakuntza behar denean ez dago trebatzailerik. Trebakuntza ematen hasten denean, orientazioak huts egiten du eta edukiek gehiegi nabarmentzen dute



alde teknikoak. Gainera, irakasleak jarduera gehiegi ditu eta, ikusten dituen mugak direla eta, gaia zaila dela uste du. Era berean, ikasle batzuek irakasleek baino hobeto maneiatzen dute ordenagailua. Internetekin balio-gatazkak sortu dira eta irtenbidea eman behar zaie.

Testuinguru horretan, *eEuropa* proiektuan jasotako helburuak bermatzeko, bai ikasleei kultura digitala jasotzeko aukera eskaintzeko eta bai teknologiak behar bezala erabiltzeko irakasleei trebakuntza bermatzeko, eskolek esperimentuak egin behar dituzte. Zentroek era *jasangarrian* hasi behar dute praktika eraldatzen *eEuroparen* esparru komunitarioaren helburuetara gerturatzeko. Lan hori errazagoa izango da zentro osoa hartzen duten eta irakasleentzat eta ikasleentzat garrantzitsuak diren proiektuak garatzen badira. Jasangarritasunaz hitz egiten dugunean, ezaugarri hauek dituen trebakuntza prozesu iraunkorraz ari gara: irakasleen hobetzeko ereduakin koherentea dena, horien beharrei erantzunak emateko bideratuta dagoena, praktikan zentratuta dagoena, orientazio teknologikoa baino gehiago pedagogikoa duena eta gelako behar errealei erantzuten diena. Prozesu horren bidez, irakasleak zentroetan heziketa proiektuak garatzeko gai izan behar du eta, teknologiaren aurrean eta sor ditzakeen desberdintasunen aurrean, eskolaren eta irakasleen zeregina eta konpromisoa ulertzen lagundu beharko dio (horretaz aparte, egungo oztupoak gainditzen dituzten mantentze baldintzak eman behar dira). Etengabeko garapen horrek mesede egin diezaiolke teknologia curriculumean integratzeari; izan ere, IKTBei hezkuntzarako zentzua eta zentzu profesionala bilatzen lagunduko du.

Azkenik, badirudi beharrezkoa dela IKTbak hezkuntza sektorean ikuspegi globalarekin sartzeko eskatzea, epe ertaineko proiektu mailakatu baten barruan; horretarako, hezkuntzako eragile eta eragile sozial guztiak sartu behar dira, Gipuzkoako Informazio Gizartearen Behatokiak<sup>2</sup> (ikus taula) aipatutakoaren arabera.

IKTBen inguruko hausnarketa heziketa erakundeen hausnarketa estrategikoaren barruan planteatu behar da, eta alderdi teknikoak eta antolakuntzako alderdiak nabarmendu behar dira hausnarketa horretan.

Hezkuntza zentroak, gurasoak, eta hezkuntzako beste eragile batzuk, administrazio publikoa, enpresak eta gizartea oro har hartu behar dira kontuan; horrez gain, gaiaren inguruan gizartea behar bezala sentsibilizatzea ezinbestekoa da.

Azpiegitura telematiko egokiak izatea *sine qua non* baldintza dira Informazioaren Gizartea garatzeko.

Irakasleak trebatzea, irakasleak motibatzea, zentroetako telematikan lider izateko gaitasuna duten arduradunak eta dinamizatzaileak aukeratzea eta zuzendaritza benetan inplikatzeko (estrategia orokorra) alderdi erabakigarriak dira.

IKTBen hezkuntza sektorearen sentsibilizazioa, hurbilketa eta erabilera eta teknologia guztien inguruko sentsibilizazio teoriko eta praktikoa aldi berekoak izan behar dute.

Garatu beharreko planteamendua hezkuntza maila guztietan sartu behar da, IKTbak erabiltzeko prozesu bateratu eta integratuaren barruan. Horretarako, irakasleak, irakasleak, gurasoak, enpresak eta gizartea barne hartuko dituen plan pilotuak egin behar dira eremu guztietan.

Eskura ditugun edukiak hobetu eta egokitu egin behar dira nahitaez eta horren barruan laguntza publikoa eta pribatua (enpresen, hezkuntza zentron eta administrazioaren artekoa) kontuan hartu behar dira, norberaren ezaugarri egokitutako kalitatezko produktuak, zerbitzuak eta edukiak eskaintzeko.

### Ikasbide Ikastola eta *eIkasbide* proiektua

Donostiako Amara auzoko 200 ikasle ikasten dute Ikasbide Ikastolan; ikastola honek 13 gela (Haur Hezkuntzako 6 gela eta Lehen Hezkuntzako 7 gela), 21 irakasle eta hiriaren bigunetan dauden bi eraikin ditu. Ikasbide zentroak informatika azpiegitura aspalditik du, eta orain dela gutxi berriro egin dute PREMIA programaren bidez. Ikastolako klaustroa proiektu berritzaileekin lan egiten ohituta dago, baina geletan IKTbak erabiltzeko garaian ikasle gehiegi (edo baliabide gutxiegi) izatearen arazoak eta segurtasun falta sortzen dira. Bestetik, zentroko ikasleen inguru sozialean eta familian ekipamendu informatikoen presentzia nabarmena da; aurkezten ari garen programa lantzen hasi aurretik galdeketa egin zitzaion ikasleei, eta horrela jakin zen ikasleen %90ak etxean ordenagailua duela. Hala ere, benetako erabilera mailaren in-

guruko daturik ez dugu.

2000/2001 ikasturtearen amaieran, IKTbak Ikasbiden integratzeko mugarrira finkatzea lortzeko, zentroa proiektu batean sartzeko ideia sortu zen. Gurasoek eta irakasleek eta, bereziki, zentroko zuzendaritzak eta Gurasoen Elkarteak iritzi bera zuten. Testuinguru horretan, proiektua garatzeko taldea sortu zen eta taldearen muina hauek osatzen dute: zentroko informatika koordinatzaileak, Gurasoen Batzordeko kide batek (informatikan espezializatua) eta Euskal Herriko Unibertsitateko Didaktika eta Eskola Antolakuntza Sailako irakasle batek. Teknologiaren erabilera konstruktibista lortu nahi da, eta hori zabaltzeko eta bultzatzeko taldea eratu nahi izatea izan da pedagogiaren alorreko hirugarren pertsona bat sartzeko arrazoia. Lanbide heziketarako balio duen proposamena egin nahi da, eta gainera, edozein zentrotan eta beste irakasle batzuekin martxan jartzeko modukoa izan behar du horrek.

Taldea	Osaera
Lehen Hezkuntzako Proiektua	Lehen Hezkuntzako 6 irakasle
Klaustroa eratzea eta kanpoko esperientzien analisisa	2 irakasle
Kudeaketa eta familiekin harremana	Zuzendaritza taldeko kide bat Informatika zentroko koordinatzaile bat Gurasoen Batzordeko kide bat



Plangintza egin eta proiekturako ki-deak aukeratu ondoren, klaustroan eta Gurasoen Batzordean aurkeztu zen eta hainbat lan talde sortu ziren (ikus taula). Ondoren, *elkasbide* zentroko Eskola Kontseiluan onartu zen, 2001-2002 ikasturteko Urteko Planaren barruan. Gure helburua epe luzera Ikasbiden IKT Bak normal erabiltzea da, eta lanerako hipotesia, berriaz, benetan lortzeko ezinbestekoa dela dagoeneko zentroan egiten diren jardueretan oinarritzea, teknologia osagaia benetan ekarpen baliotsua izango den tokian sartzeko. Zentroaren dinamikan sartuko den proiektua izan behar du, eta pixkanaka-pixkanaka IKT Bak tresna baliagarri eta eraginkor izatera heldu behar dute. Helburu hori kontuan hartuta, elkasbide proiektua dinamizatzeko zentroan garatzen diren bi jarduerak aukeratu genituen: *Sorkari* aldizkaria kaleratzea eta Kataluniako eskola bateko ikasleekin trukea egitea (Linars dels Valles-ko Escola de Ginebró). Bigarren jarduerak, bigarren hiru hilabetean egin zen eta hiru arrazoi hauengatik iruditu zitzaizgun egokia: ikasleen artean komunikatzeko tresna gisa posta elektronikoa erabiltzeko, elkar ezagutzeko eta elkar-tzen zirenerako jarduerak prestatzeko eta trukea egin ondoren harremanetan segitzeko. Ordura arte zenbaki bakarra zuen eta paperean bakarrik ateratzen zen aldizkariak (*Sorkari*) beste edizio-mota bat ere badu, *eSorkari* izenekoa, eta Kataluniako eskolako ikasleekin trukea egiteko proiektuari *eTruke* izena eman zitzaion.

Proiektua gauzatzeko 6. mailako irakasleak aukeratu genituen. Jarduera maila horretan garatuz, ikastolako irakasle guztiak inplikatzeko lortu nahi zen;

izan ere, guztiek egingo dute 6. maila. Bestetik, maila horretako irakasleak helduak dira eta jarduerak hiru ikasturteko edukiekin naturaltasunez lortzeko aukera asko daude; era berean, teknologiaren erabilera ez da artifizialki behar-tzen. Aldizkariaren edizioa ikasturtearen dinamikan finkatuta dagoen jarduerak da eta teknologiaren erabileran naturaltasunez sartzeko aukera ematen du. Gainera, irakasleak jarduerak ongi ezagutzen du, teknologia aldagaia ongi ezagutzen duen egoeran sartu behar du. Horrek prozesua errazago planifikatzeko aukera ematen du eta aldatari aparteko ahaleginik egin gabe aurre egiteko aukera ematen du. Beraz, aldizkari digitala egitea (disketean, CDan edo Interneten argitaratua) eta kopiak familiei eta klaustroari banatzea erabaki zen. Gure asmoa ez da Internet etxean ez duten irakasleek, aldizkariaren aitzakiarekin, hura lortzeko presioa egiten hastea; beraz, aldizkaria irakurtzeko nahitaz Internet izatea ez da ezinbesteko baldintza.

Ikasturte bakoitzeko hiru zenbaki kaleratuko dira; abenduan, apirilean eta ekainean argitaratuko dira. Aldizkariaren aztertuko diren gaiak ikasturtearen aztertutakoak izango dira: denbora-pasak, ikastolako bizitza soziala eta abar.

Artikulu hau idatzi arte egindako jarduerak garrantzitsuenak hauek dira:

- *eSorkari* ren 0 zenbakiaren edizioa eta banaketa. 0. zenbakia kaleratzeko irakasleek egindako lanak 3 sailetan banatu dira: lehen zenbakiaren gai nagusia da, eta eguzki sistemako planeten gaia jorratu da; bigarren sailean denbora-pasak argitaratu dira (hitz gurutzatuak, horoskopoa eta txistek); eta hirugarrenean ikastolako bizitza soziala-

ren inguruko berriak bildu dira, zentroko irakasle bati elkarrizketa egin diote eta ikastolako modari buruzko artikulua idatzi dute (janzteko moda eta jolasarako moda: puxtarria, tazoak eta abar). Muntaketa egiteko irakasleek argitaratutako testuak errespetatu dira eta Ms Word eta Ms Frontpage erabili dira. Haurrek erabili egin dute aldizkaria eta *beren familiekin etxean ikusi ahal izan dute*; gainera, zuzenean parte hartu ez duten irakasleek lana ontzat jo dute.

- *eTruke* programari dagokionez, esan behar da posta elektronikoa bidez mezuak bidaltzen hasi direla, irakasle trukea egiten hasi aurretik.

- Ikasturte honetan eta Eusko Jaur-laritzak Prestakuntza jarduerak plana (irakasleentzako prestakuntza) garatzeko ematen dituen diru-laguntzei esker, IKT Ben inguruko bi trebakuntza ikastaro egiten ari dira zentroko irakasleak, bi taldeetan banatuta: oinarritzko ikastaroa, Word, Windows eta Interneten hastapenak barne hartzen dituen; eta goi mailakoa, Interneti, web orrii eta sareari buruzkoa.

- Planifikatu eta nahi gabeko "lankidetzak" ere izan ditugu urte honetan: Pazkoko oporren aurretik zentroko informatika ekipamendua lapurtu zuten (lapurrak bi aldiz sartu ziren ikastolan); 3.000 euroko balioa duen ekipamendua lapurtu zuten.

## Ondorioak. eItkasbide proiektua eta IKTBen erabilera konstruktibista

Orain arte egindako lanak aztertu-ta, hasieratik gure esperientziaren norabidea finkatu duten alderdiak berretsi behar ditugu. Lehenik, *progresiboki* garatu beharreko proiektua sortzeko beharra. Hori dela eta, aldizkari digitala kaleratzea prozedurari hasiera emateko era egokia dela uste dugu; proiektu interesgarria eta aberatsa da eta informatikako tresna ugari erabiltzeko aukera ematen digu. Teknologia berriekin egindako esperientziaren aberastasuna eskolan egindako jardueren garrantziaren arabera izango da; horrek, gainera, irakasleak motibatu egiten ditu eta irakasleei segurtasuna ematen die. Bestetik, ikuspegi horrek denboran ahalegin *jasangarria* egiteko aukera ematen du; IKT Bak etorkizunaren ere erabiliko dira eta epe luzerako proiektuak prestatu behar dira. Hala ere, proiektu horietan irakaslearen garrantzia kontuan hartu behar da, eragozpenak (ez beldurra) gainditzea lortzeko eta beste irakasleekin zer eta nola egiten duen komentatzeko.

Bigarren ondorioa hau da: trebakuntza eskaera zentrotik *informatuta* egotea garrantzitsua dela uste dugu. Garrantzitsua da proiektua garatzeko beharrei erantzuteko klaustroak merkatuari edo erakundeeri trebakuntza proposamenak eskatzeko aukera izatea. Horretarako, beharrezkoa da erreferentzia izango diren esperientzia zehatzak izatea, irakaslea bezero zorrotz bilakatzeko eta sistema eragilean eta edizio programen inguruko informazioa jasotzen duen pertsona soila ez izateko. Ildo horretatik, erakundeek hezkuntzan arrakasta izan duten eta kalitatea egiaztatua duten esperientziak identifikatzea garrantzitsua da, horiek oinarri hartuta komunikazio jarduerak sustatzeko eta profesionalen arteko esperientzien trukaketa sustatzeko.

Zentroan ahaleginak batzeko aukera emango duen *orientazioarekin* lan egiteko beharra da hirugarren ondorioa. Norberak egindako ahaleginak

goraipatzekoak dira, baina epe ertainera ez dute behar bezalako emaitzarik ematen, eta ez dute behar adina identifikazio eta orokortzerik sortzen. IKT-Ben potentzial berritzailea garatzeko, giza baliabideen trebakuntza mimatu behar dugu proiektu komunaren barruan. Horrela aprobeztatu ahalizango dugute teknologiaren benetako potentziala.

Azkenik, esparru programak Europako dokumentuetan azaltzeko, gela-tan ordenagailuekin egin beharreko jarduerak eta teknologiarekin dugun konpromiso kritikoa orientatzeko, kontuan hartu beharreko termino bat erabiltzen dute: 'erabateko parte-hartzea'. Inor baztertuko ez duen gizartea eraikitzeko, baztertze digitalaren arriskuaren inguruko kontzientzia garatu behar da eta kontsumoko behar gehiago ez sortzeko sentsibilizazioa izan behar da (kasu honetan, teknologia informatikoaren inguruan). Horregatik, garrantzitsua da familiek eskura ditzaketen bitartekoetara egokitzea. Jarduerak erakargarriak izan daitezke, baina aurreikusi gabeko beharrak eta nahi ez direnak sor ditzakete: ekipamendu ahaltuagoen beharra, material suntsigarri garestiagoak, telefono lotura gehiago. Horregatik, garrantzitsua da etxeetan eta baliabide-etxeetan (kulturalak, so-

zialak...) eskura ditzuten bitartekoak zein diren jakitea eta errealitatera egokitzea, familiei arrazoirik gabeko beharrik ez sortzeko. •

### BIBLIOGRAFIA

- BLANCO ARBE, J.M.: *Nuevas tecnologías de la información y las comunicaciones. Comunicación y planteamientos sociales, 2001*: <http://suse00.su.ehu.es/euskonews/0116zkbk/frgaia.htm>
- CORREA, J.M.; ARRUZA, J.A.: *Contextos de Aprendizaje*, EHU Bilbao, 1998.
- FERREZ, J.; MARQUES, P.: *Comunicación educativa y nuevas tecnologías*, Praxis, Bartzelona, 1996.
- GROS, B.: *El ordenador invisible*, Gedisa, Bartzelona, 2000.
- JOHNSON, D.L.; MADDUX, C.; LIU, L.: *Integration of technology into the classroom*, Haworth Press, New York, 2000.
- MADDUX, C.; LAMONT, D.; WILLIS, J.: *Educational Computing*, Allyn & Bacon, Boston, 2001.
- NEWBY, T.; STEPICH, D.; LEHMAN, J.; RUSSELLI, J.: *Instructional Technology for Teaching and Learning*, Merrill, New Jersey, 2000.

<sup>1</sup> Teknologiaren erabilera konstruktibistaz ari garenean, trebakuntza eredu jakin batekin lotutako esanahi koherentea du guretzat. Trebakuntza eredu horrek ezaugarri hauek izan behar ditu: bankuarekin lotura ez izatea; erreproduzitzaila ez izatea; prozesuan zentratuta egotea; kontzepzio transformazionala izatea; motibazio endogenoa bultzatzea - subjektua protagonista izatea eta ikasketaren ardatza taldea izatea, ez irakaslea, testua edo ordenagailua; subjektuaren jarduera eta ikasketa bultzatzea; subjektuaren autonomia garatzea; haren interesak errespetatzea; hausnarketa eta ekintza bultzatzea; ikasketa prozesuetako komunikazioa elkarriketa sortzeko izatea, ez informazioaren transmisio soila izatea, eta teknologiak baztertzea bultzatu beharrean parte-hartzea sustatzea.

<sup>2</sup> ikus: <http://www.egipuzkoa.net/archivos/panoramasociedadinformacion-caas.pdf>



Bide eginean jarraitzen  
dugu zuen ekarpenekin  
eta parte-hartze  
handiagoarekin aberastu  
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa  
duen edonoren parte-  
hartzea gustu handiz  
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa  
euskal hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.



# Berriak

## azaroa

## Musika Irakasle Euskaldunon III. Topaketak jende ugari bildu du

Musika Irakasle Euskaldunon III. Topaketa Lekeition ospatu da aurten eta antolatzaileak gustura gelditu dira. Urteik urtera ezagunagoa bihurtzen ari den topagune honetan musika irakasleak biltzen dira euren arteko esperientziak trukatzeko eta elkarren berri izateko. Era berean, euskaraz egindako material didaktikoa erakusgai izaten da.

Aurreko urteetan Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako aurkezpenak egin baziren ere, aurten Haur eta Lehen Hezkuntzan zentratu dira. Izan ere, bi mailetako arazoak desberdinak direnez, egokiago ikusi dute bananduta aztertzea.

Bestalde, bizkaitarren parte-hartzea bultzatzeko asmoz egin dira aurten Lekeition, eta emaitza onak eman dituela esan behar da.



## Euskal unibertsitatearentzat berrikuntzak ekarriko ditu UEUren II. Kongresuak

Abenduaren 14an egingo du Udako Euskal Unibertsitateak bere II. Kongresua Bilboko Euskalduna Jauregian. Helburua egoeraren azterketa eginez, etorkizunari begira jarri eta UEUren berrikuntza eta egokitzapena burutzea da. UEUko ordezkariak aditzera eman dutenez, *Euskal Unibertsitatearentzat* mugarrizko kongresua.

Xabier Isasi UEUko zuzendariak azaldu ditu kongresua egitearen arrazoiak, eta besteak beste, *“egoera berriaren azterketa egiteko”* izango dela esan du. UEU orain dela 30 urte sortu zen, eta urte horietan guztietan gizarteak zein UEUk berak izan dituzten aldaketak aztertuko dira eta aurrera begirako urratsak finkatu ere bai.

Finkatze horren barruan UEUren berrikuntza eta egokitzapena aurrei-

kusten dituzte. Iñaki Marko UEUren II. Kongresuko artekariak azaldukoaren haritik, *“Euskal Unibertsitatearen kontzeptua sakondu eta eguneratu egingo da, eta kontzeptu berri baten proposamena aztertuko da: “Euskal Unibertsitate-Sistema” deitu izan dena. Horrekin batera, UEUren egitekoa zein izango den ere eztabaidatuko da, hots, noraino izan nahi duen eragile eta noraino eraikitzailea”*.

Helburu estrategikoekin zerikusia duten beste hainbat gai ere landu eta erabakiko dira: euskarazko formazio eskaintzaren aukeraren zabalpena euskal gizartean, komunitate zientifiko-intelektualaren bilgunearen indartzea, titulazio maparen garapena eta elkarlan esparruen garapena: euskal campusak sustatu, ezagutzaren ataria sortu, campus birtuala garatu, UEUren eredu pedagogikoa eraiki, hezkuntza eraikinen sarea osatu lurralde guztietan, egitura propioa osatu Iparraldean...

Era berean, barne egitura eta funtzionamendua ere eraberrituko dira.

Gai eta puntu horien guztien azken erabakia UEUko kideek izango dute, bai aurretik txostenak aztertuz eta bai kongresuan bertan.

Abenduaren 12an ekitaldi berezi bat egingo da gizarteari kongresuaren aurkezpena egiteko. Bertan, Mikel Aizpuru UEUko zuzendari ohi eta historia-lariak UEUren historiari buruz egin duen liburua aurkeztuko du.

## Euskal Herriko Unibertsitatea etorkizunerako prestatu eta egokituko da abenduan ospatuko duen II. Kongresuan

# Eraso guztien gainera euskal hezkuntza sistemarengako konfiantza azaldu dute irakasle, guraso eta administrazioak

Euskal eskola publikoko irakasle, zuzendari eta gurasoak minduta agertu dira hainbat komunikabidek euskal hezkuntza sistemaren aurka esandakoen aurrean.

Urriaren 7an Tele5 eta El Mundok *“La cara oculta de Euskadi”* erreportaia atera zuten argitara, eta bertan, besteak beste, Oreretako Langaitz ikastolako haur bat eta Hernaniko Urumea ikastolako zuzendaria agertzen ziren. Ikastola bietako zuzendariak edukien manipulazioa salatu dute, eta euren lana desprestigiatzeko edozein bitarteko erabili izana. *“Ez kutuko kamerarekin”* ibili gabe, euren ikastoletako atek edonorentzat irekita daudela azpimarratu dute, ez baitute ezer ezkutatzeko.

Xabier Balerdi Urumea ikastolako zuzendariak kontatu duenez, otsailean euren seme-alaba matrikulatu nahi zuten guraso bezala joan ziren bi kazetari. *“Gure hezkuntza proiektuaren inguruko argibideak ematen hasi nintzaienean, berehala moztu eta beraiek hasi ziren galderak egiten”*. *“Itaunketak”* hartzen zuen norabidea ikusita, zuzendariari susmagarria iruditu zitzaion, eta erreportaiaren frogatuta gelditu da haien asmoa zein zen. Gauzak horrela, publikoki salatu nahi izan dute jasan duten engainua eta manipulazioa. Edonola ere, egoera honekin bi gauza lortu direla azpimarratu du Balerdik: *“Gure eguneroko lanaren sinesgarritasuna sendotzea eta esku artean dabilgun proiektuarekiko gurasoen atxikimendua gehitzea”*.

Ritxar Maritxalar Oreretako Langaitz ikastolako zuzendaria ere minduta eta kezkatuta agertu da egun hauetan jasan duten egoeraren aurrean, ikasle baten irudia *“erabili”* eta *“manipulatu”* egin baitute. Maritxalarrek adierazi duenez, *“Langaitz ikastolaren helburua euskara bultzatzea da, eta erreportaia horretan garbi geratu da lan hori ondo egiten dugula”*. Horren aurrean, gurasoen aldetik jaso duten babesa eta konfiantza eskertu ditu.



Urriaren 7an eman zuten prentsaurrekoa guraso, irakasle, zuzendariak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuarekin eta sailburuordearekin batera.

Adierazpen horiek prentsaurreko batean egin dituzte, eta beraiekin batera izan dira Anjeles Iztueta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua, Abel Ariznabarreta sailburuordea, Andoni Lizeaga Sarean-eko ordezkaria, Josu Agirre BiHEko lehendakaria eta Ana Eizagirre EHI-GEko lehendakaria.

Guztiak bat etorri dira irainen aurrean aspertuta daudela esatean eta euskal hezkuntza sistemarekiko konfiantza osoa agertu dute.

Anjeles Iztueta sailburuak esan du irain horiek guztiengan dutela eragina, irakasle, guraso, abertzale, ez abertzale eta hezkuntza sisteman azken urteotan lanean jardun diren kontseilari guztiengan. *“Benetan jasanezina da eta erantzuna merezi du. Momentu honetan ke-reila jartzeko aukera aztertzen ari gara”*. Euskal hezkuntza sistemarenganako eta irakasleengan duen konfiantza baieztatu du ziurtasun osoz.

Sarean-eko ordezkari Andoni Lizeagak aipatu du *“berezi maltzurak eta iraingarriak izan direla El Mundok eta Tele5k eskainitako erreportaiak”* irakas-kuntza esparruari erreferentzia eginez. *“Beren zeregina interes politiko jakin batzuei erantzutea da”* gaineratu du, *“eta okerrera zera da: helburu alderdikoi horietara heltzeko datuak eta informazioa*

*bera manipulatu, deskontestualizatu eta desitxuratu egiten dutela, horretarako beren esku dagoen edozein eragile iritsi behar bada ere”*.

Josu Agirre BiHE Bigarren Hezkuntzako Zuzendarien Elkarteko lehendakariak ildo beretik hitz egin du eta gaineratu du *“gizarteari eskatu nahi diogu, inoiz baino gehiago, hezkuntza integratzaileria izango bada eta gizarte elkartua eraiki nahi bada, eragile guztien elkarlana eta jokabide etikoa ezinbestekoa dela (politikoak, komunikabideak, gurasoak, irakasleak...), hezkuntza mundua erabilera politikoak at utziz”*.

EHIGE Euskal Herriko Ikasleen Guraso Elkarteko lehendakari Ana Eizagirrek gurasoek irakasleekin batera ikastetxeko proiektua egiten parte hartzen dutela esan du, eta irakasleengan konfiantza osoa dutela. *“Gurasoek badakigu zer nahi dugun hezkuntzan eta horren alde egiten dugulan. Berdintasuna, multikulturalitatea, ardura, nortasuna, tolerantzia, hiritartasuna, parte-hartzea eta errespetua dira gure seme-alaben hezkuntza jarraibide batzuk”*. Euren eta seme-alaben eskubi-deak defendatzeko Arartekoarengana jozteko asmoa agertu dute. *“Izan ere, adingabeen irudiak ezin dira grabatu gurasoen baimenik gabe; beraz, Arartekoari kontsulta egitera joango gara”*.

## Droga-prenbetziori buruzko ikastaroa

Askagintzak antolatuta *Arrisku egoeran dauden kolektiboekin lanean aritzeko droga-menpekotasun prebentzio teknikarien ikastaroa* egingo da Hernanin ikasturte honetan zehar.

Ikastaroa azaroaren 18an hasi eta maiatzaren 3an amaituko da. Saiok astelehenetan eta larunbatetan izango dira, guztira 15 eta 5 saio, hurrenez hurren. 80 ordu teorikoak izango dira eta 40 praktikoa, ikastaroaren amaieran lan praktikoa burutuko delarik.

Helburu nagusiak droga-menpekotasun fenomenoaren errealitate ezberdinak ezagutzeko, legeen berri izatea eta prebentzio ekintzen inguruko programak, egitasmoak, estrategiak, ebaluazioak eta abar ezagutzeko dira.

Izena emateko epea: azaroak 14

**Informazio gehiagorako:**

Askagintza

Tel.: 943 33 60 80

Faxa: 943 33 63 27

askagintza@euskalnet.net

## Haur eskola (0-3 urte) jakintza zientifikoaren argitan:

### Lehenengo Jardunaldiak Haur Hezkuntzaz Mondragon Unibertsitatean

*Haur eskola (0-3 urte) jakintza zientifikoaren argitan: galderak, erronkak eta proposamenak* izenburupean ospatuko dira Mondragon Unibertsitateak antolatu dituen Haur Hezkuntzari buruzko jardunaldi hauek. Azaroaren 22 eta 23rako egina dute hitzordua.

Azken urteetan industria herrialde garatuetan aldaketa handiak gertatu dira, besteak beste, lan erritmoa eta emakumea laneratzeari dagokionez. Aldaketa horiek fenomeno berri bat eragin dute: haurra gero eta goizago uzten da eskola sistemaren esku, hazi eta hezi dezan. Fenomeno honen ondorioak, ordea, ezin dira oraindik neurtu.

Haurrak 0-3 urte bitartean haur eskolan denbora dezente uzteak haurren portaera, emozio eta kognizioaren garapenean zer ondorio izan ditzakeen aztertuko da jardunaldi hauetan. Eta baita ere haur eskolek izan behar dituzten ezaugarriak haurren garapenik onena berma dadin.

#### Azaroak 22, ostirala

9:30 Jardunaldien hasiera. Anjeles Iztueta eta Inaxio Oliveri.

10:00 Jardunaldiei sarrera. Rafael Cristóbal (HUHEZI).

10:40 Atsedenaldia.

11:00 Haur Eskola eta haur garapen goiztiarra (0-3 urte): galderak, erronkak eta proposamenak. Marinus van Ijzendoorn (Leydeneko Unibertsitatea).

12:15 Bildutakoekin solasaldia. Moderatzailea: Alexander Barandiaran (HUHEZI).

13:00 Goizeko jardunaldien bukaera.

14:15 Atxikimendua eta arreta esko-

lan: nola aurrera egin biekin. Karin Grossman (Regensburgeko Unibertsitatea).

15:30 Solasaldia bildutakoekin. Moderatzailea: Rafael Cristóbal (HUHEZI).

16:15 Atsedenaldia.

17:15 Mahai ingurua. Moderatzailea: Rosa Elizburu (Arizmendi ikastola).

18:15 egunaren bukaera.

#### Azaroak 23, larunbata

9:30 NICHHD azterketa haur eskolei buruz. Marinus van Ijzendoorn (Leydeneko Unibertsitatea).

10:40 Atsedenaldia

11:00 NICHHD azterketa (jarraipena). Marinus van Ijzendoorn (Leydeneko Unibertsitatea).

12:00 Solasaldia bildutakoekin. Moderatzailea: Mariam Bilbatua (HUHEZI).

13:00 Goizeko jardunen bukaera.

14:15 Haur Eskola: kalitate indikatzaileak (aurkezpen audiobisuala). Karin Grossman (Regensburgeko Unibertsitatea).

15:30 Solasaldia bildutakoekin. Moderatzailea: Arantxa Lejarraga (Arizmendi ikastola).

16:15 Atsedenaldia.

16:45 HAZITEGI proiektua. Alexander Barandiaran (HUHEZI) eta Rosa Elizburu (Arizmendi ikastola).

17:00 Mac Arthur proiektua: Komunikazioa Gaitasuna Neurtzeko Zerrenda 8-30 hilabete bitarteko haurrentzat. Andoni Barreña eta Iñaki Garcia (HUHEZI).

17:45 Jardunaldien ondorioak. Rafael Cristóbal (HUHEZI).

18:15 Jardunaldien bukaera. Inaxio Oliveri.



# Bergarako UNEDeko Psikomotrizitate Eskolak sentsibilizazio ikastaroak eskaintzen ditu

Heziketa Praktika Psikomotrizean formatzeko bi urteko ikastaroa (2004ko urtarriletik 2005eko abendura) hasi aurretik haurren osasun eta heziketa lanean ari direnei zuzendutako hiru "sentsibilizazio" ikastaro antolatu ditu Bergarako UNEDeko Psikomotrizitate Eskolak. Aipatu bi urteko ikastaroa egin ahal izateko derrigorrezkoa izango da aurretik "sentsibilizazio" ikastaro hauetako bat behintzat egin izatea.

Ikastaro horien emaileak irakasle hauek izango dira: Miguel Angel Dominguez Sevillano, Jon Pérez de Arriluzea, Alvaro Beñaran eta Mari Jose Inxausti. Guztiak B. Acoururier Hezitzaile Taldekoak dira.

Ikastaroen egutegiari dagokionez, hauek dira **egunak eta lekuak**:

**2002ko abenduak** Bilbo-Txurdinaga, Pio Baroja ikastetxea, Gabriel Aresti kalea 1  
**13, 14 eta 15**

**2003ko maiatzak** Pasaia-Trintxerpe, Virgen del Carmen ikastetxea, Ulia etorbidea  
**23, 24 eta 25**

**2003ko irailak** Gasteiz, Luis Elejalde ikastetxea, Nikaragua kalea z/g  
**19, 20 eta 21**

**Ordutegiari** dagokionez, honakoa izango da:

Ostiralean: 18:00-20:00

Larunbatetan: 9:00-13:00 eta

14:00-19:30

Igandetan: 9:00-15:30

**Izena emateko** epea ikastaro bakoitza hasi baino zortzi egun lehenago bukatuko da.

**Prezioa** 126,21 eurokoa da.

**Informazio gehiagorako:**

UNED, Psikomotrizitate Eskola  
69 posta kutxa  
20570 Bergara  
Tel.: 943 76 90 33  
E-posta: info@bergara.uned.es  
www.uned.es/ca-bergara

**Bulego lanorduak:** astelenetik ostiralera 10:30-13:00 eta 17:00-20:00

## Euskal irudigileen erakusketa eta ipuin kontalariak bilduko dira Iurretako Herri Bibliotekan



Galtzagorri taldeak **Euskal irudigileen erakusketa** antolatu du eta Iurretako Herri Bibliotekan izango da ikusgai **urriaren 31tik azaroaren 29ra** bitartean.

Erakusketa honekin euskal irudigileen lanak eman nahi dira ezagutzera, eta bide batez, Haur eta Gazte literaturan irudigintzak duen garrantzia azpimarratu nahi da.

Abagune hori aprobetxatuz, abendura bitartean ipuin-kontalarien saioak izango dira ostiralero arratsaldeko 6:00etan. Haur bibliotekan irakurzale-tasuna suspertzeko egiten ari diren kanpainaren barruan kokatzen dira aipatu saioak eta honako egutegia izanen dute:

**Azaroak 8:** Rosa Maria Martinez

**Azaroak 15:** Itziar Zubizarreta

**Azaroak 22:** Oihulari Klown taldea  
**Azaroak 29:** Muxerenga taldea  
**Abenduak 5** (osteguna): Alaitz Muro  
**Abenduak 13:** Itziar Zubizarreta  
**Abenduak 20:** Rosa Maria Martinez (ipuin kontaketa eta txotxongilo emanaldia)

**Abenduak 27:** Oihulari Klown



## Euskadiko Ingurumen Hezkuntzako III. Jardunaldiak Donostian

Azaroaren 28, 29 eta 30ean *Euskadiko Ingurumen Hezkuntzako III. Jardunaldiak* ospatuko dira Donostiako Miramar jaureginan. Duela 11 urte egin ziren II. Jardunaldiak, eta orduz geroztik gauza asko aldatu dira. Munduan Rio de Janeiroko eta Johannesburgeko Goi Bilerek Ingurumen Hezkuntzaren norabidea eta lehentasunak finkatu dituzte datozen urteetarako. Horrez gain, EAEn Garapen Jasangarriaren Euskadiko Ingurumen Estrategia (2002-2020) finkatu da.

Jardunaldi hauetan Ingurumen Hezkuntzak jasangarritasun prozesuan duen eginkizuna indartu nahi da. Esperientziak trukatzeko gunea eskaini nahi du, eta horrekin batera, Ingurumen Hezkuntza gure eguneroko jardueran sartzeko bide berriak bi-latu nahi dira eragile guztien artean.

### Informazio gehiagorako:

Haizelan Ingurugiro Hezkuntza  
Tel.: 94 496 77 17  
Faxa: 94 496 67 89  
E-posta: haizelan@haizelan.com

## Hezkuntzaren egungo erronkak aztergai Adarraren jardunaldietan

### ADARRA

Pedagogi Erakundea

Adarra Pedagogia Erakundeak Hezkuntzaren egungo erronkak izenburupeko jardunaldiak antolatu ditu azaroaren 28, 29 eta 30erako Bilbon.

Jardunaldi hauek gaur egungo gizar-tean hezkuntzak aurre egin behar dien erronkei buruz hausnarketa egiteko unea izan nahi dute. Aldi berean, Luis Otano bezalako pertsonen omenaldia egin nahi zaie, beraien ibilbide profesionalean zehar euren konpromisoaren eta jarreraren bidez agertu duten erronkei aurre egiten jakin dutenei eta pedagogia berrikuntza bul-tzatzen jakin dutenei, hain zuzen ere.

Hiru egunetako jardunaldien helburu nagusiak hauek dira:

- Gaur egungo informazioaren gizar-tean ditugun hezkuntza erronkei buruz hausnartzea.

- Hezkuntza etorkizunari begira eta desberdintasunak gainditzeko eskolak duen eginkizunaz hitz egitea.

- Biharko eskola berrian irakasle-en eginkizunaz eztabaidatzea, eta baita eskola komunitateko kide guztiez heziketa arduraz ere.

Helburu horiei begira honako egitaraua prestatu dute:

### Azaroak 28, osteguna

17:30 Jardunaldien hasiera: Abel Ariznabarreta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuordea eta Begoña Lasa Adarra Pedagogi Erakundeko lehendakaria.

17:45 Hitzaldia: *Ezageraren gizar-tean heztea*. Luis Otano.

19:15 Hitzaldia: *Ikasle etorkinak eskolan*. Uri Ruiz Bikandi (EHU).

### Azaroak 29, ostirala

17:30 Hitzaldia: *Desberdintasunak*



*nak gainditzeko dituen eskola*. Ramon Flecha (Bartzelonako Unibertsitatea).

19:00 Mahai ingurua: Gizar-teari zabalik dagoen eskola. Partaideak: Ana Eizagirre (EHIGE), Manuel Bizarrraga (Kalé dor Kayokó), Carmen Vega (San Antonio Etxebarrri LHI) eta Ramon Flecha (Bartzelonako Unibertsitatea).

### Azaroak 30, larunbata

9:30 Hitzaldia: *Berritzearen abentura*. Jaime Carbonell (Cuadernos de Pedagogiako zuzendaria).

11:00 Atsedendia

11:30 Mahai ingurua: *Eskolaren aldaketa: irakasle-en eginkizuna*. Partaideak: Asun Olano (Bilboko Zama-kola LHI), Jose Ramon Orcasitas (EHU), Francesc Imbernon (Bartzelonako Unibertsitatea) eta Elena Martin (Madrilgo Unibertsitate Autonomoa).

13:00 Jardunaldien amaiera. Jose Manuel Uribarri (Hezkuntza zinegotzia) eta Fermin Barceló.


14:30 Bazkari omenaldia

Jardunaldietarako izen ematea jardunaldien barruti berean egingo da azaroaren 28an, hots, Bilboko Juan Larea Aretoan (Gran Vía, 50). Matrikula dohainik izango da eta lekua kopurua mugatua.

### Informazio gehiagorako:

Adarra Pedagogi Erakundea  
Concha Generala, 25  
Bilbo  
Tel.: 94 421 25 76

# Urtxintxa Eskola eta Hik Hasi elkarrekin euskal jolasak sustatzen



Euskaraz jolasten ikasteko  
ikastaroak zuen esku

# Argitalpenak



**Euskal Herriko hezeguneak**  
Mikel Estonba  
Elhuyar

Liburu honetan hezeguneak zer diren eta nola funtzionatzen duten azaltzeaz gain, Euskal Herriko 12 hezegune deskribatu eta aztertzen ditu egileak, oro har, hiru sailkapen nagusi eginez: kostaldeko hezeguneak, barrualdekoak eta artifizialak. Ondoren, hezegune horiek bertatik bertara ezagutzeko ibilaldiak proposatzen ditu, eta liburuaren amaieran hezegune horiek mapa batean kokatzen ditu •



**Gogoa**  
II-2 2002ko urria  
EHU

EHUko Hizkuntza, Ezagutza, Komunikazio eta Ekintzari buruzko aldizkariaren ale berria kaleratu da. Oraingoan ekonomia, gogoaren filosofia, psikologia eta euskararen semantika eta erretorikako lanak aurki daitezke, batzuk itzulpen lanak direlarik, beste batzuk artikuluak, ikerketen azalpenak, kritikak edota berriak. Azken orrialdeetan orain arteko aldizkariaren aurkibideak bildu dira •



**Etxaldeko abentura berriak**  
Pere Rovira eta  
Francisco Arredondo  
Ttartalo

Liburu honetan etxalde polit batean bizi diren animalien abentura berriak aurki ditzakegu. Tapa gogorak dituen formato handiko liburu honek, guztira zazpi ipuin biltzen ditu eta 4 urtetik gorako haurrei zuzenduta dago. Honetaz gain, istorio dibertigarri hauek, ilustrazio koloretsu eta erakargarri hornituta datoz, irakurketa eta jolasa batzen dituztelarik •



**Urruzuno literatur lehiaketa 2002**

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Irakaskuntza Ertainetako ikasleentzat antolatzen den Urruzuno literatur lehiaketako 2002ko lan sarituak biltzen dira liburu honetan. Prosa nahiz poesia arloko hamarna lan daude irakurgai. Horrez gain, azken orrialdeetan orain arte, lehiaketa hasi zenez geroztik, 17 urtetan zehar, sarituak izan diren guztien zerrenda gehitu da •



**^ //jokoa.com^**  
Gemma Lluch  
Erein

Ordenagailuaren bitartez komunikatzen diren bi gazteren arteko istorioa du oinarri liburu honek. Biek errealitatek ihes egiteko **jokoa** asmatzen dute, sentimenduak manipulatu eta frustrazioak hustu daitezkeen unibertso berri bat. Hasieran, ordenagailuan baino existitzen ez zen unibertsoaren kontrola galdu egingo dute, ordea, eta orduan hasiko dira arazoak •



**Uso bat gehiago**  
Patxi Ezkiaga  
Ibaizabal

Liburu honetako zatiak mundua gizakorrago egin nahi duten paperezko hartatxoak dira, banderarik gabeko txalupak, denok barruan daramatzagun kantuen doinuak, nahiko genukeenaren promesak, oraindik krisalidan dauden tximeletak, bultzaka, eguzkia sentitu nahian. Egileak prosa poetikoan argitaratzen duen lehen liburua da honako hau •



# Badator Jolasen altxorra bideoa



Datorren hilaren hasieran esku artean izango duzue Hik Hasiren *Jolasen altxorra* bideo berria. 20 jolas eta abesti biltzen dituen euskal piraten istoria da filmaren ardatz, eta protagonistak Pirritx eta Porrotx pailazoak, Barrabas pirata maltzurra, itsasneska, eta nola ez, haurrak eta jolasak dira. Horrekin batera, hairbat hairbat gonbidatuk hartzen dute parte.

Ordubeteko iraupena duen film hau Hik Hasik jolasen inguruan egin duen bilduma osatzerara dator, beti ere, hasierako helburua mantenduz: haurrek euskaraz jolastea eta abestea. Horretarako bidea eta aukera zabaltzen die bideoak modu atsegina, erakargarria eta alai.

Itsasoko olatuek  
kulunkatzen gaituzte,  
txipli-txapla eraginez,  
jolastuz nahi baitute...

Pirritx eta Porrotx ohean daude. Amona kontatzen ari den ipuinaren amaierara iritsi da.

*"Hala bazen ala ez bazen sar dadila kalabazan eta irten dadila..."*. Lokartu aurretik amona Josefinak piraten ipuin bat kontatzen die Pirritx eta Porrotx pailazoei. Euskal Herrian piratak





ba ote ziren galdetzen diote jakin-minez eta amonak Pirixtin eta Porroxtin euskal piraten eta Barrabas pirata maltzuraren berri ematen die. Kontu horiek buruan bueltaka dituztela lokartzen dira, eta hortxe hasten da beraien ametsa eta abentura.

Trata, trata, euskal piratak, ei!  
trata, trata, bandera airean.  
Trata, trata, euskal piratak, ei!  
Trata, trata, ezpata eskuan.

Pirritx, Porrotx eta euskal pirata txikiak irla batera iristear daude. Eskuan mapa eta soinean indarra eta kemena dituztelarik, altxorraren bila doaz. Barrabas pirata maltzurak, ordea, ez ditu gustuko, eta irlara hurbiltzen hasi orduko euren asmoa zapuzten hasiko da, altxorra berarentzat nahi baitu.

Barrabasekin bizi den itsasneska mutua, ordea, hurrei eta pailazoei laguntzeko gogoz dago, Barrabas baino maiteago baititu. Mutua denez, gormutuen hizkuntzan komunikatzen da Barrabasekin eta hurrekin.

Piratak, piratak eta lehorrekoak.  
Aurretik, atzetik, bi talde eraturik.  
Korrika, iheska, ospa azkar hemendik  
Lehorrekoak doaz bizi zuen atzetik.

Haurrak eta pailazoak alai eta gogotsu murgiltzen dira irlan, jolastuz eta abestuz: ezkutaketan, gomatan, dantzan...

Haurrak korroan,  
erratza erdian,  
erdikoa biraka,  
besteak hegaka.  
Salto eta salto,  
gira eta bira,  
erratzak ukitzen bazaitu,  
jokotik kanpo gelditu.

Barrabas piratak, berriz, oztopo baten atzetik beste bat jartzen die: lehorretzeko txalupa txikia zulatutzen die kanoiarekin, zubia puskatutzen die, mapa kendu eta errekan behera botatzen die...

Bien bitartean, itsasneska hurrei laguntzen ahalegintzen da, eta horretarako lepotik zintzilik duen zinginarriaz baliatzen da. Zinginarriaren bitartez, hainbat pertsoneri deitzen die eta haurrak dauden lekuan agertzen dira haiei laguntzeko: Orioko arraunlariak eta Gozategi taldekoak lehorretzen laguntzeko, Juan Gorriti zurgina basoan iparra bilatzen laguntzeko, Aloña Galarraga segalaria basoko bidea irekitzeko, Aitor Sarasua bere bizikletarekin errekatik mapa berreskuratuzeko, Jose Luis Zumeta erreka zubiaren "erromako zubiaren" bidez zeharkatzen laguntzeko, Alberto Iñurrategi eta Edurne Pasaiban amildegia zeharkatzeko, Txipa txakurra Barrabas lurrera botatzeko, Jon Maia dantzaria egarria asetzeko, Juan Mari Arzak sabela betetzeko, Fermín Muguruza, Mikel "Anestesia" eta Mikel Abrego altxorraren aurkikuntza

ospatzeko, Olatz Zugasti Barrabas pirata lokartzeko... Modu batera edo bestera pirata txikiei laguntzen diete horiek guztiak eta itsasneskaren deirik gabe ere beste batzuek agertzen dira: Didier Mundutegi, Andoni Aizpuru eta Kristina Urrutia.

Nor da dantzari jai handi honetan zuen pozgarri hementxe bertan.  
Dantza ezazu zuk, Garazi, nirekin dantza ezazu, zuk badakizuzu.

Azkenean altxorra aurkitzen dute, eta ba al dakizue zer topatzen duten kuttaren barruan? Bada... hori jakiteko bideoa ikusi beharko duzue!!





## Duela

bi urte kaleratutako *Zatoz jolastera!* bideoaren estilo bera du, baina istorioa eta jolasak desberdinak dira. Osagai gehiago nahasten dira eta horrek aberatsagoa eta biziagoa bilakatu du.

Bideoan ordubeteko iraupena duen abentura bera da jolas bat, altxorraren bila izeneko jolasa. Horren barruan, ordea, beste 20 jolas biltzen dira. Horietako pare bat **hik hasiren Haur-jolasen abestiak** IICDtik aterata daude, eta gainontzekoak *Haur-jolasen abestiak* IIICDtik. Haur txikientzako moduko abestiak eta taldeko jolastekoak dira, batzuk herrikoiak eta beste batzuk hik hasiko zenbait kidek asmatuak.

Bestalde, jolas horietan murgildurik eta altxorraren bila dabiltzan euskal pirata txikien gorputzean sartu diren aktoreak Lasarte-Oriako Zabaleta auzoko antzerki tailerreko haurrak dira. Kontxu Yartzak darama tailerraren ardurak eta bera ibili da haurrak prestatzen.

Grabazioa, filmazioa eta muntaia egiten, berriz, *Zatoz jolastera!* bideoan bezalaxe, Iruñeko ITP taldekoak aritu dira Enrike Urdanozen zuzendaritzapean.

Irla, altxorra, erreka, amildegia, piratak, belauntzia, ezpatak, jolasak, basoa, kanoia, abestiak, kamerak, txakurra, haizea, pailazoak, eguzkia, zinginarria, euria, itsasoa... dena nahasten duen abentura bizi eta atsegina da *Jolasen altxorra*. •

Anakonda suge bat da,  
biltzen dena mantso-mantso.  
Harekin bilduz gero,  
bihurtzen gara ero-ero.



## Elbira Zipitria, euskal eskolaren izen mitikoa



Idoia FERNANDEZ

EHUko Pedagogia Fakultateko irakaslea

Euskal hezkuntzaren historiari arreta jartzen dion aldizkariaren atal honetatik agertu zaizkigu, honezkerok, zenbait emakume izen: Julia Fernandez Zabaleta eta Maria Dolores Goia. Gaur beste izen ezagun bat, Elbira Zipitria, ekarri nahi dugu gogora, zeren euskal maistra guztiek bezala, urteetan zehar lan isila egiteaz gain, gerraurreko euskal hezkuntza metaketa gerraostearekin jarri baitzuen harremanetan, maistra belaunaldi berria nazional-katolizismotik at sozializatzeko eta prestatzeko aukera ahalbidetuz.

### Nor zen Elbira Zipitria?

Elbira Zipitria 1906an Zumaiako herrian jaio eta oso gazte zela Donostiarantz bizitzera joan zen. Hiri honetako Eskola Normalean ikasi eta 1926an Lehen Hezkuntzako maistra agiria eskuratu zuen, berehalaxe Muñoa Jaunaren Ikastetxean 6 urtera arteko neska-mutuei eskolak ematen hasi zelarik.

Gerra Zibila hasi zenean Iparralderajoa eta, 1942an Donostiara bueltatu arte, Antonio M. Labaien semeekin klaseak ematen jardun zuen. Urte batzuetan klase partikularrak ematen ibili on-

doren, 1946an Fermin Calbeton kalean ezarri zuen bere eskolatxo (etxe-eskola) orduko hezkuntza legeak 9 urtera arteko eskolatzeko arauak ahalbidetzen zutenarekin jokatuz.

1969ra arte mantendu zuen Zipitriak bere etxe-eskola, eta urte horretan halaber aldatu ere, zeren une horretan Gipuzkoako Gobernu Zibilak etxe-eskolen debekua ezarri eta legeztatutako beharra derrigortu baitzuen. 1969an etxe-eskolak erabat desagertu zirela esan dezakegu, ez soilik aginte politikoaren erabakiaren eraginez, bai-



Elbira Zipitria bere ikasleekin, Rekarte-Barriolatarren "Anai-etxe"an ospatutako jai batean 1954. urtean (Arg.: Eusko Ikaskuntza, Cuadernos de Sección, Educación, 4).



zik eta gizartean sortu zen euskal eskola eredu berria, ikastola izenez guztiok ezaguna den hori, erabat zabaldu eta finko sustraitu zelako.

Baina nolakoa zen Elbira Zipitria? Gure ustez, nagusiki bere garaiko emakumea izan zen, euskal pizkundea gertatzen hasi zenean jaiotako eta nazionalismoaren urterik emankorrenetan gazte izan zen emakumea, ideia eta mugimendu ezberdinen arragoa, alegia. Bere ekarpenaren muina ulertzeko hurrengo hiru puntu hauek aztertzeari derrigorrezko deritzogu, bere ideologiaren osagai nagusitzat jotzen baititugu, hain zuzen, Muñoa Jaunaren ikastetxeko irakaslea izateari, euskararen munduko loturari eta Emakume Abertzale Batzako militantziari.

Esan dugun bezala, 1926an hasiz lanean Zipitria Muñoaren ikastetxean. Muñoa Jaunak eratu zuen eskola euskal irakaskuntzako lehenengo saio jarrai eta sendoa izan zela esan behar dugu, eta euskara hutsez irakastea, gaztelania ikasgai hartzea, aisiari garrantzi berezia ematea eta nagusientzako gau- eskolak antolatzea izan ziren ikastetxe honetako ezaugarri azpimarragarri batzuk. Horretaz aparte, aipatu behar dugu Muñoak euskal irakaskuntzarako zeukan grina ez zela bere ikastetxera mugatzen; Euzko Ikastolen Batzaren proiektuaren diseinuan eta Euzko Ikaskuntzaren lanetan parte hartu zuen, baita adibidez 1931an Donostian ospatu zen "Elebitasunaren Kongresuan" ere. Datu horiek guztiak Elbirak bere profil profesionalaren atal bat bederen euskal hezkuntzaren gune aberats batean taxutu zuela adierazten digute, hamar urteko epean gainera.

Muñoaren ikastetxeko jarduera hau, noski, ez zen esperientzia isolatua izan. Zipitriak, gazte-gaztetatik Gipuzkoako euskararen aldeko mugimenduarekin oso harreman zuzenak izan zituen. Manuel Lekuonak euskara garbiaren kontuan Elbira Zipitria "proselitizatza" jotzen du, herrietara abertzaletasuna erakustera zetorrelarik: "*Ola-ko proselitismo-saioak eratze-ko oitura andia zan orduan: Kapitaletatik erri*



Elbira Zipitria bere etxeko egongelan haurrekin ariketak egiten 1968ko Gabonetan. Elbirak bere etxean igarotako azken urtea izan zen (Arg.: Euzko Ikaskuntza, Cuadernos de Sección, Educación, 4).

*txikietara; Andereinoak eta mutil abertzaleak Donostia tik eta Bilbao tik baserrietara, abertzaletasuna erakustera*"; Tolosa eta Oiartzun aldeko lagunekin batera *Argia* aldizkarirako artikuluak idazten zituen, eta giro berberaren bitartez Tolosako ikastolako sortzaile eta andereñoekin harremanetan zegoela ikusi ahal dugu, baita Aitzol, Lekuona, Labaien eta euskal munduko izen ospetsu batzuekin ere.

Elbiraren euskararekiko kezka hauek *Euskaltzaleak* erakundeko ki-

**“Euskara eta euskal kulturaren arrastorik txikiena guztiz galarazita zegoen momentu batean, euskara bide zelako eskola bat antolatu eta martxan jartzea izan zen esperientzia honek bereziki nabarmendu zuena”**

detzan ere antzeman daitezke. Jakina denez, nazionalismoaren barruan kultur politika aberkideaz aparte, bazegoen *Euskaltzaleak* erakundea, etiketa politikoetatik ihesi, euskara eta euskal kulturaren pizkundea aldarrikatzen eta bultzatzen zuena. Haren adierazlerik garrantzitsuenak José de Ariztimuño "Aitzol" eta José M. De Agirre "Lizardi" izan ziren eta Euzko Ikaskuntzarekin harreman estuak zituztelarik *Euskararen Eguna* eta euskal antzerkia, poesia eta elaberriaren aldeko jardunak antolatu zituzten.

Baina bere biografian badago beste atal azpimarragarri bat: Zipitriaren EABko militantziaren berri ematen diguten lekukotasunak, hain zuzen. Dударik gabe, erakunde honek Zipitriak gorpuzten zituen hainbat ezaugarri bereganatzen zituen, besteak beste, euskararekiko eta erlijioarekiko kezka, heziketa lana (bai eskolakoa, bai eskolatik kanpokoa ere) eta nazionalismoaren zabalkundea. Zipitria ez zen izan EABko edonolako militantea, militante kualifikatua baizik, arlo politiko eta publikoan, propaganda eta emakume hizlarien puntako markoan aritzen zen militantea. Aipamen honen adierazgarri, adibidez, 1932ko apirilean Donostiako EABko eraketa saioaz Policarpo Larrañagak esaten diguna: "*..y el formidable mitin en el Frontón Urumea sin precedentes en Donostia, con una asistencia calculada en 25.000 personas, a cargo de los brillantes oradores patriotas Mercedes de Kareaga, Elvira Zipitria, José Antonio Aguirre*".



Elbira Zipitria bere etxeko egongelan ikasleen lanak zuzentzen 1968. urtean. (Arg.: Eusko Ikaskuntza, Cuadernos de Sección, Educación, 4).

Gerraurreko esperientzia eta jardueraren bitartez, Zipitria nazioarteko eta euskalgintzaren harreman sareetan guztiz txertatuta eta kokatuta zegoela esan dezakegu; lagun harremanak eta politika, hizkuntza, hezkuntza eta erlijioaren bidezkoak gurutzatu, elkar osatu eta oinarri bihurtzen dira bere bizitzaren azterketa guztian zehar. Gauzak horrela, gerrara arte zituen lagunekin erbesteratu, exilioa eurekin igaro eta berriro herriratu zenean harreman zirkulu berdinean ikusten dugu.

### Lehenengo euskal eskolak frankismoan: Donostiako etxe-eskolak

Zipitria Iparraldetik etorri eta 1946an bere etxe-eskola zabaldu zuen Fermin Calbeton kalean. Maistra tituluduna izateak ematen zion aukera profutatuz, bere etxean 9 urtera arteko haurrak bildu eta hezten aritu zen. 9 urteak betetzean, haurrek legeak ezartzen zituen edukien ezagupena "ingreso" izeneko azterketa batean frogatu behar zuten hezkuntza arautu eta formalean jarraitu ahal izateko. Etxe-eskola hauek zuzendaria eta erantzulea irakaslea bera zen, eta gurasoek ordaintzen ziotenarekin finantzatzen ziren eskolako gastuak.

Horrela funtzionatzen zuten eskolak gerraurrean aurkitzen ditugu, baita edukiak euskaraz emanez ere. Beraz, funtzionaketa eredu ez zen berria, are gehiago, legeak agindutakoaren irizpideei jarraituz (edo hezkuntza sistemak zituen lotugabeko bideei jarraituz) an-

tolatu ziren etxe-eskolak. Berrikuntza, zalantzarik ez, egoera soziopolitikoaren eskutik etorri zen; euskara eta euskal kulturaren arrastorik txikiena guztiz galarazita zegoen momentu batean, euskara bide zelako eskola bat antolatu eta martxan jartzea izan zen esperientzia honek bereziki nabarmendu zuena.

Martxan jarri bai, baina euskaraz izateaz gain, Zipitria gerraurrean praktikatuak eredu pedagogikoaz baliatu zen, nagusiki pedagogia ekintzailearen ekarpenak nabaritzen zaizkiolarik: interes guneak eta ikuspegi globala, haurra hezkuntzaren ardatz hartzea, ingurune naturalekiko harremana, ibilaldiak baliabide pedagogiko gisa... oro har, memorismotik eta autoritarismotik ihesi zihoan planteamendu pedagogikoa.

Irakasleen prestakuntzari ere ekarpen berezia egin ziola azpimarratu nahi genuke. Zipitriak, gerra baino lehenago zegoen joerari jarraituz, irakaslerien prestakuntzari garrantzi handia eman zion, eta 50eko hamarkadaren hasieran maistra gazteak etorri zitzaizkionean, berarekin urtebeteko praktikak egitea eskatu zien. Etxe-eskola bat zabaltzeko, irakasle titulua ezinbesteko lehenengo baldintza zen eta bere metodologian urtebetez aritzea derriortu zuen.

Maistra hauek, praktiketako urte horretan, goiz eta arratsaldeko ikastaldietara joan eta, etxera itzultzean, dena apuntatu eta jasotzen zuten. Praktiketarik ibilitako andereño bik honela go-

goratzen dute: "...Eseritzen zinen eta ikusi nola egiten zuen lana, eta pasatzen zitzaizun ohartu ere egin gabe denbora! (...). Beste ikasle bat bezela, lurrean eserita eta hantxe, dena berri-berria zen, niretzako izan zen dena berri-berria, osea, Normaletik atera anormala bezela eta orduan hara joan eta ikusi.."; "Orduan zen noski, horrela, lurrean, kanikakin, baino zein matematika zen hura!, inork ez zekiena, kolegiarik eta sonatsuenetan ere inork ez zekien bezalakoa. Izugarria, izugarria, hori niretzat izan zen (...) Pentsa! urtebete pasatzen genuen hori ikusten, eta agian ez zen nahikoa, eta magisterio osoa egina genuen, eta hiru urtez magisterion praktikak egiten genituen? Gero oposaketak ere prestatu genituen eta hala ere zeharo gauza berri bat, ba nik uste ezagutu genueno sekula ahaztuko ez zaiguna".

Praktikak egitea, beraz, andereño gazte horientzako guztientzako esperientzia aberasgarria bihurtu zen eta eskolak ematen hasi baino lehen ezinbesteko baldintzatzat jotzen hasi ziren; ordutik aurrera, etxe-eskola zein beranduago ikastoletara joango ziren andereñoak denbora luze batean esperientziadun andereño batekin ibiltzea arau bihurtu zen euskal hezkuntzan.

1984ko ekainean zendu zen, haurren, helduen eta andereñoen andereño izandako emakume nekazina. •

### Bibliografia

- ARANBURU, X.: "Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Elbira Zipitriaren biografiarako jakin-gaiak: Ikastola Donostian 1942-1969 urte bitartean", *Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación*, 4 (1991). Donostia. 13-14.

- FERNANDEZ, I.: *Oroimenaren hitza. Ikastolen mugimenduaren historia 1960-1975*, UEU, Bilbo, 1994.

- LEKUONA, M. (1985): "Elbira Zipitria", in Euskarazaintza (arg.): *Zipitria 'tar Elbira Andereñoa. Omenaldia*, Lopez Mendizabal, Tolosa.

# Ipuinak, olerkiak, musika... CD batean

Durango salgai



Bost ipuin egile: Bernardo Atxaga, Juan Kruz Igerabide, Arantxa Iturbe,  
Anjel Lertxundi eta Mitxel Murua

Lau ipuin kontalari: Anjel Alkain, I aki Beraetxe, Arantxa Iturbe eta  
Mitxel Murua

Olerkari bat: Joxan Ormazabal

Bi musikari: Jexux Mari Lopetegi eta Xabier Zabala

Pertsonaiak: Pirritx eta Porrotx pailazoak  
Antonio Bolas, gezurra egiaren kolorean kontatzen duen gizona  
Haur taldea